

FAMiLiA-POLiTIKAK

ONGIZATE ESTATUAN

ANNA CABRE • IMANOL ESNAOLA • JESUS HERNANDEZ ARISTU • MARTA LUXAN
• CLAUDE MARTIN • ERNESTO RUIZ LANCHARES • EGUZKI URTEAGA

Editorea:
Inaki Irazabalbeitia Fernandez

Hainbat testuren itzulpena:
Elhuyar Fundazioa

Liburu honek BY-NC-SA lizentzia du

Euskal Herrian publikatua



ezkerraberri fundazioa

Aduanaren txokoa 18,
31001 Iruñea

Lege-gordailua:
ISBN: 978-84-09-0028-3

Erakunde babeslea

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

AURKIBIDEA

1	Hasierako hitzak	6
2	Sarrera gisa	10
3	Egileei buruz	14
4	Utzi demografia bakean!	50
5	Familiak eta familia-politikak Frantzia. Zer aldaketa?	60
6	Euskal gizartearen argazki sozio-demografikoa	72
7	Familia-politikak EAEn	72
8	Familiaren soziologia eta familia-politikak	72
9	Jaiotza-tasa, ongizatea eta familia-politikak	72
10	Demografia ez da arazoa, familien aldeko politikak ez dira irtenbidea	72

1. HASIERAKO HITZAK

JOXERRAMON BENGOETXEA
EHUGUNE

6

EhuGune, Euskal Herriko Unibertsitatearen proiektua da zeinak asmoa duen gaurkotasan soziala, politikoa edo ekonomikoa duten gaiei buruzko elkarrizketa bideratzea gizarte zibilaren, akademiaren eta erakundeen artekoa. Demografia hasiera-hasieratik lehentasunezko gai moduan identifikatu zen eta lurraldeen eta identitateen auziarekin batera Euskal Herria 2050 izeneko prospekzio sozialeko bloke orokorrago batean kokatu zen.

Hasierako kontsiderazioa izan zen gure herrian gertatzen ari diren eboluzio eta joera demografikoez XXI. mendearen erdialdean nolako gizartea izango garen determinatuko dutela. Jaiotza-tasa baxuak eta populazioaren zahartze-maila handiak kezkatzen gintuzten, Europako gainerako ia gizarte gehienekin elkarbanatzen baditugun ere, are maila handiagoa dutenak gurean. Adineko pertsonen zuzendutako politikak planteatzen duten erronkaren tamainako arreta jasotzen ari dira, baina ugalkortasunari begirako politikak ez direla arreta egokia eta nahikoa jasotzen ari pentsatzen segitzen dugu, bereziki modu holistikoagoan heltzen ez zaielako. Ez

da soil-soilik ugalkortasuna sustatzea edo laguntzea, beste moduko neurri sozialak behar dira ondoan: babes-neurriak, amatasunean oraindik gertatzen den diskriminazioa prebenitzeko lanak, zaintzaren ikuspegia integratzen duten neurriak ezartzea karrera profesionalaren esparruan eta genero-berdintasuna zaintza-lanetan ezartzea.

7

Demografiaren esparruko aspektu batzuk immigrazioarekin, edo hobe esanda migrazio-fenomenoekin, erlazionatuta daude eta baita integrazio-auziekin ere. EhuGuneren baitan detektatu dugu demografia-arazoei buruz diharduten irakasle-eta ikerlari-eskasia dagoela, nahiz eta gure unibertsitatean diharduten pertsona gutxi horiek kalitate handikoak diren. Horretxegatik interes bereziarekin hartu genuen Ezkerraberrik gai hori tratatzeko proposatu zigun ekimena eta EhuGuneko koordinatzaile eta lankide Xabier Aierdik parte hartze zuzena izan zuen jardunaldiaren garapenean. Bihoakie beraz Xabier Aierdiri eta Inaki Irazabalbeitiari nire eskerrik beroena, eta berdin jardunaldian eta liburu honetan parte hartu duten guztiei. Aurrerantzean ere izango dugu elkarrekin hausnartzeko aukera

2. SARRERA GISA

INAKI IRAZABALBEITIA

8

Ezkerraberi fundazioaren patronatuak 2015eko hondarrean aztertu eta eztabaidatu zuenean hurrengo urterako egitasmoa, proposatu ziren proiektu eta programen artean, bati berebiziko inportantzia eman zion. Ideia hauxe zen: krisi garai honetan aztertzea zein ekarpen politiko egin zekioken ezker soberanistari proiektu nazional bat abiatzeko. Ekarpen hori sektore edo esparru aukeratu batzuetatik abiatuta egitea proposatu zen.

Sei sektore nagusi identifikatu ziren. Horietako bati 'herritarrak' izena eman zitzaion. Argi zuen patronatuak herritarrik gabe ez dagoela herririk, lurraldeak bakarrik ez duela herri bat egiten. Herritar horiek bertan sortutakoak edo kanpotik etorritakoak izango dira. Edozein kasuetan ere, ezkerrek politikak eta jarduerarako lerroak identifikatu eta landu behar ditu herrigintzari begira. Estrategia bat beharrezkoa da. Alorreko adituak gonbidatu genituen mahai baten inguruan gogoeta egitera.

Foro horren konklusioetako bat izan zen familia-politikak oso ahulak direla Hego Euskal Herrian konparatuta Europako estatu aurreratuenekin eta, urritara joan gabe,

Ipar Euskal Herrian aplikatzen direnekin. Hortaz, familia-politikei buruzko jardunaldi bat antolatzea erabaki zen, ildo horretako gogoetan sakontzeko. Jardunaldi horren ponentziak biltzen dira liburu honetan.

9

JARDUNALDIAREN TESTUINGURUA

Euskal gizarteak prozesu demografiko eta sozio-ekonomiko gogorrek bizi izan ditu II. Mundu gerraz geroztik. Burujabetasunik gabeko edo burujabetasun mugatuko egoeran kudeatu behar izan ditu hazkunde handiko garaiak eta baita gainbeherarenak ere.

Oro har, prozesu hauek muturreko ondorio sozio-ekonomiko eta demografikoak izan dituzte. XXI. mendean sartuta eta ongizate estatua desegiteko prozesu azeleratua bizi dugun honetan Euskal Herria eta bere osatzen duten eremu administratiboek ardua garrantzitsua dute politika publikoen bitartez, ongizate estatua bermatzen,

eta batez ere, pobrezia zein gizarte bazterketa eragiten duten prozesuen inguruan politika orekatzaile eta birbanatzaileak indarrean jartzeko. Bide hori ezinbestean egin beharra du gure gizarteak osasuntsu iraun eta herri gisa garatuko bada.

Familia da arestian aipatu ditugun prozesuen protagonista eta biktimetako bat. Dela adineko senideen zaintza, dela belaunaldi gazteena, familiako zaintza ardurak dituzten pertsonen errenta, insertzio sozio-profesionala, (emakumearena batez ere)... familiak unitate moduan murrizketa eta zailtasun nabarmenak bizi ditu bere eginkizuna eraginkortasunez betetzeko. Horren ondorioz, halaber, bertan inplikaturako pertsonen garapen sozio-profesionala eta ekonomikoa auzitan ikusten dugu (lanaldi murriztuak, prekarietatea...) eta egoerarik ahulenean dauden pertsona gazte zein adinekoen zaintza eta ardura arriskuan (elikadura, ikasketak, sozializazioa). Gure herrian familiari lotutako prozesuen adierazle sozio-ekonomikoak gero eta adierazle eskasagoak dituzte. Ongizate estatuaren baitan familia-politikak berebiziko eginkizuna izango dute kohesio soziala garatzeko euskal gizartearen.

10

JARDUNALDIAREN NONDIK NORAKOAK

Jardunaldia hiru hitzaldik eta mahai-inguru batek osatu zuten. Bertan adituen eta administrazio publikoen iritzia jaso nahi genituen. Hego Euskal Herriko bi administrazio nagusiak gonbidatu genituen. Tamalez Nafarroako gobernuak ezin izan zuen ordezkariarik bidali. Jaurlaritzako ordezkariak, oraindik orain aurkeztu den Familia eta Haurren itunaren lerro nagusiak aurkeztu zizkigun.

Sarrera-hitzaldia Anna Cabrek egin zuen eta familia-politiken inguruko hainbat faktoreri buruz aritu zen, gogor salatuz gizartearen dabiltzan hainbat uste, 2,1eko berritze-tasarena etsenplurako. Imanol Esnaolak Euskal Herriko egoera izan zuen aztergai ikuspegi ekonomiko zein sozialetik eta horrek familiari nola eragiten dion. Frantzia izanik sarritan aipatzen den eredu-tako bat, Claude Martinek Frantziako familia-politikek izan duten bilakaera eta etorkizunera begira dituzten desafioak izan zituen mintzagai. Mahai-inguruan bost adituk, Zer egin gurean? Zer-nolako politikak behar ditugu familientzat XXI. mendeko euskal gizartearen? galderei erantzuna ematen saiatu ziren. Mertxe Fernandezek gidaritzapean Anna Cabre, Eguzki Urteaga, Jesus Hernandez Aristu, Ernesto Ruiz Lanchares eta Marta Luxan aritu ziren.

MONOGRAFIA HONI BURUZ

Fundazioak klaru du eginiko jardunaldiei eta ekimenei iraunkortasuna eman nahi bazaie eta mezua ahalik eta hartzaile-kopuru handienari helarazi nahi bazaio, hitzetatik harantzago joan behar dela. Paperak aukera hori dema. Hortaz, liburuki hau publikatzea aurreikusi zen jardunaldia diseinatzerakoan.

Asmo horri jaramon eginez, monografia honetan jardunaldiaren edukiak bildu ditugu. Hizlari bakoitzari aukera eman zaio azaldutakoa paperean jartzeko. Emaizta ondorengo orrialdeetan dago. Espero dugu interesekoak izango zaizkiola irakurleari hizlarien gogoetak eta proposamenak eta gaiak are gehiago janzteko balio izango zaizkiola. Halaber, Euskal Herriko etorkizuna diseinatzen eta eraikitzen joateko bidean ekarpen xume hau baliagarria fortunatzea nahi izango genuke. Denborak esango du asmatu ote dugun!

ESKERRAK ETA GRAZIAK

11

Eskerrak emateko atal honetan Ezkerraberriren esker ona agertu nahi diogu EhuGuneri, beste behin guk proposatutako elkarlanari emaniko baiezeko sutsuagatik eta bereziki Xabier Aierdiri antolaketan erakutsitako ardura eta konpromisoarengatik.

Mila esker, noski, hizlari guztiei eginiko lanaren kalitatearengatik. Bertan izan ziren entzuleek ere gure esker ona merezi dute. Azpiegitura egokirik gabe ez dago deus antolatzerik. Eskerrak bada, etxeko Xabi Vallina eta Aitor Arzari eta Bizkaia aretoko ekipo guztiari, bereziki Ione Aranari, beraien ardura eta inplikazioa dena erraztu baitzuen.

3. EGILEEI BURUZ

ANNA CABRE I PLA

Centre d'Estudis Demografics, anna.cabre@uab.cat

Annak Paris I unibertsitatean doktore-titulua lortu zuen. Hainbat unibertsitatean irakaslea eta ikerlaria izan da: Montrealgo unibertsitatean, Chicagoko unibertsitatean, Sorbonako unibertsitatean, Nanterreko unibertsitatean eta Mexikoko kolegioan. Egun Kataluniako Azterketa Demografikoko Zentroko ohorezko zuzendaria eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle emeritua da. Azterketa Demografikoko Zentroaren sortzailea izan zen.

Anna demografiari buruzko azterketa eta artikulua askoren egilea da eta bere lanaren muina Kataluniako demografikoaren eboluzioaren azterketa izan da. Aditu moduan Espainiako Diputatuen Kongresuko eta Kataluniako Parlamentuko hainbat batzordetan parte hartu du.

Sari eta errekonozimendu ugari jaso ditu. *Institut d'Estudis Catalans* delakoaren kide osoa da.

IMANOL ESNAOLA ARBIZA

Gaindegiko koordinatzailea, bulegoa@gaindegia.eus

Imanol filologian lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Euskal soziolinguistika alorreko ikerlaria eta editorea (Bat soziolinguistika aldizkaria, Euskararen erabileraren neurketa...) eta oro har Euskal Herriaren nazio-garapeneko egitasmoetara profesionalki emana lizentziatuz gero.

2004az geroztik Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiko koordinatzaile eta bere zuzendaritzako kide da.

JESUS HERNANDEZ ARISTU

Irakasle jubilatua Nafarroako Unibertsitate Publikoan,
jesusharistu@gmail.com

Jesus teologia eta filosofia ikasketak egin eta gero Renaniako unibertsitatean pedagogian lizentziatu zen eta Deustuko unibertsitatean doktore-titulua lortu zuen.

Akisgranen hainbat erakundetan lanean aritu ondoren, Iruñeko Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolako zuzendaria izan zen (1988-1990). 1990az gero Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea izan da jubilatuta arte. Horretaz gain hainbat lan publikatu, azterlan ugari burutu eta aholkulari-lanak egin ditu

Hainbat guraso-eskolen sortzailea izan da.

MARTA LUXAN SERRANO

Soziologia II saila, Euskal Herriko Unibertsitatea, marta.luxan@ehu.eus

Marta soziologian lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Demografian doktore gradua lortu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Egun Soziologia II saileko irakaslea da EHU.

Ikerketa-lerro nagusi hauek jorratu ditu: gai demografikoak eta, bereziki, familia eta ugalkortasuna; ikerketa metodologia eta, bereziki, ikerketa metodologia feminista; genero ikuspuntua teknika kuantitatiboetan txertatzearen inguruko hausnarketa teoriko zein praktikoa; mugimendu sozialak.

Artikulu zientifiko ugari publikatzeaz gain, zabalkundeko lanak eta irakaskuntzarako materialak ere publikatu ditu.

CLAUDE MARTIN

CNRSko ikerketa-zuzendaria (Frantziako Ikerketa Zientifikorako Zentro Nazinoala), «Haurtzaroa, ongizatea, gurasotasuna» katedraren titularra, CNAF-EHESP, Arènes – CNRSko 6051 UMR, claude.martin@ehesp.fr

Claudek Caengo unibertsitatean psikologian diplomatu zen eta Paris 8 unibertsitatean soziologian doktore-maila erdietsi zuen. Caengo eta Quebeceko Lavalgo unibertsitateetan, Osasun Publikoko Eskola Nazionalean eta CNRSn aritu da lanean. Egun ikerketa-zuzendari da CNRSn eta EHESPn.

Hainbat aldizkari zientifikoan erredakzio-batzordeetako kide da, hala nola, *Politiques sociales et familiales* eta *Sociologie*. Era berean, *Lien Social et Politiques* aldizkariaren zuzendaria da.

Clauden ikerketak familiaren soziologian eta politika sozialen alorrean garatu dira nagusiki: familia-politikak, familiaren bilakaera, zaurgarritasun-egoerak, etab. Frantziako administrazioaren zein Europako Batasunaren enkarguz hainbat ikerketa-lan burutu ditu esparru horietan.

ERNESTO SAINZ LANCHARES

Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaria,
familia@euskadi.es

Ernesto zuzenbidean lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Egun Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendaria da. Abokatu lanak egin izateaz gain, hainbat enpresetan jardun da. Eusko Jaurlaritzara iritsi baino lehen, Tolosako Uzturre asistentzia-guneko kudeatzailea izan zen.

15

EGUZKI URTEAGA OLANO

Soziologia eta Gizarte Langintza saila, Euskal Herriko Unibertsitatea,
eguzki.urteaga@ehu.eus

Eguzki soziologian lizentziatu zen Victor Segalen Bordele 2 unibertsitatean eta historian Paueko eta Aturrialdeko unibertsitatean. Soziologian doktore-maila lortu zuen Victor Segalen Bordele 2 unibertsitatean. Egun irakasle da Euskal Herriko Unibertsitatean. Bordeleko, Lovainako eta Coimbrako unibertsitateetan irakasle gonbidatua izan da.

Eguzkik 29 liburu publikatu ditu eta 150dik gora artikulu aldizkari zientifikoetan. *Mare et Martin* argitaletxeko bilduma-zuzendaria da halaber. Euskal Herriko komunikabideetan ohiko kolaboratzailea da.

4. UTZ EZAZUE BAKEAN DEMOGRAFIA!

ANNA CABRE

16

Mila esker demografiaz hitz egitera gonbidatzeagatik. Sarritan, frogatu gabeko eta erraz gezurtatzeko moduko gertakariei itxura zientifikoa emateko erabili ohi da demografia; adibidez, pentsioen jasangarritasunaz mintzatzean.

Horregatik, demografia gehiago erabiltzeko gomendatu beharrean, hau diotsuet nik: utzi bakean demografia, eta ekin egiazki axola dionari! Zergatik? Demografia zifrak eta zifrak direlako. Eta populazioa zifra huts bihurtzen baduzu, azterketa kuantitatibo bilakatzen da dena, eta niri zaila egiten zait egoera hori onartzea, hau da, gizarteek halako jende-kopuru bat izan behar dutela onartzea, halako egitura, ez dakit zer erritmotan berritu behar dutela eta auskalo zer zenbakizko helburu bete behar dituztela onestea. Izan ere, badirudi populazio horietako norbanakoek eta familiek erritmo jakin batean jardun eta ugaltu behar dutela helburu jakin batzuk lortzeko. Gainera, helburu horiek ez dira eztabaidagarriak; badirudi arkaikoak direla: inoiz ere ez zaio utzi behar hazteari, beti eduki behar da borrokarako adinean dagoen gizon gazte ugari edo umeak izateko adinean dagoen nahikoa emakume, edo 2,1eko berritze-tasa... Antza denez, denok egin behar dugu bat helburu horiekin.

BERRITZE-TASAK

17

1960ko hamarkadaren hasieran, zigortuta zeuden Frantzian (han bizi nintzen ni garai hartan) jaiotza-kontrola eta abortua, bai eta horiei buruz informazioa ematea ere. Eztabaida bizia sortu zen pilula antikonzeptiboa plazaratu zenean, eta Frantzian ez zuten utzi nahi erabiltzen. Ziotenez, % 30 jaitsiko omen zuen pilularen erabilerak jaiotza-tasa (nahi ez ziren jaiotzena, alegia), eta, horrenbestez, ez omen zen lortuko 2,1eko zorioneko berritze-tasa. "Ez dugu behar adina ume izango, eta alemanek inbaditu egingo gaituzte!" Orain, barregura emango du agian arrazoibide hark, baina, sasoi hartan, ontzat ematen zen. Izan ere, bi aldiz inbaditu zuen Alemaniak Frantzia, ustez ugalkortasuna handiagoa zuelako. Baina ez da inoiz frogatu arrazoi horren benetakotasunik. Aberriarekiko obligazioetako bat zen, garai hartan, alemanen pareko ugalkortasuna edukitzea. Frantziako Alderdi Komunistaren egunkariak ere, *L'Humanitek*, "bizio burgestzat" jotzen zuen kontrazepzioa. Azkenik, Frantziako industria farmazeutikoaren presioagatik onartu zen pilularen erabilera, berentzat nahi baitzuten negozioa, eta ez enpresa britainiar edo suitzarrentzat, Frantziakoen kaltetan.

Garai hartan, oso zabaldua zegoen ikuspegi hau: seme-alaba ugari eduki behar zen, gizartearen, aberriaren edo langileriaren onerako. Asko aldatu da pentsaera ordutik hona, eta, egun, produktu bat baino gehiago azpiproduktu bat dira seme-alabak. Kosta ahala kosta guraso-estatusa berenganatu nahi duten amen eta aiten azpiproduktu bat dira seme-alabak. Aspaldi utzi nion harrizteari nire lankide edo ezagun gazteenei “ume bat izan behar dut” edo “hardun nago” entzun beharrean “ama izan behar dut” (edo “aita izan behar dut”) entzuten nienean. Ohartu nintzen ez zela hitz egiteko modu bat, errealitatea zela; hots, doktoretza, gizarte-segurantzaren txartela eta hori guztia lortu duzunean, ama- edo aita-agiria falta duzu. Interesgarria da hori; izan ere, aita edo ama izateko aski da ume bakarra izatea. Nahikoa da seme edo alaba bakarra guraso-estatusera iristeko. Eta horrek ondorioak dakartza etorkizunerako ere, aitona- edo amona-estatusari ere aplika baitaikiok: “Ez nuke hil nahi amona izan gabe”. Izan ere, ume bakar batek ere familia-estatus ugari sor ditzake. Ume bat baino gehiago izanez gero, hirugarrenak ez du inolako familia-estatusik sortzen; bigarrenak, berriz, anaia, neba, ahizpa edo arrebarena. Beraz, ez litzateke harriztekoa izango seme, alaba eta biloba bakarra izatea etorkizuneko “ugaltze-zorua”.

JAIOTZA-POLITIKAK

Jaiotza-politikei dagokienez, immorala da, nire iritzian, politika jakin batzuk bultzatzea jendeak seme-alaba gehiago edo gutxiago izan ditzan, gurasoenak ez diren helburu batzuk betetzeko, gainera. Eta are immoralagoa, lortu nahi diren helburuak friboloak edo okerrekoak badira; adibidez, emakume bakoitzak 2,1 ume izan behar hori.

Zer adierazten du, baina, nonahiko 2,1 horrek? Diotenez, unitateaz behekoa baldin bada populazioaren ugaltze-tasa garbia (hau da, emakume bakoitzak 2,1 ume baditu), gutxitu egingo da populazioa. Baina, XIX. mende osoan, Frantziako biztanleria ez zen murriztu, nahiz eta unitateaz behekoa izan beti ugaltze-tasa eta immigraziorik jaso ez. Beraz, oker dago zerbait uste horretan. Izan ere, gaurko heriotza-tasa kontuan hartuta, 2,1 seme-alaba nahikoa dira populazioari egonkor eusteko eta hazkundea zero izateko. Baina, zein dira 2,1 horretara eraman gaituen eredu egonkor horren baldintzak? Bada, heriotza-tasa konstante izatea, eta ez izatea migraziorik. Eta hori gezur erabatekoa da populazio errealean. Badira 150 urte heriotza-tasa jaisten ari dela, eta aurreikuspenek diote jaisten jarraituko duela. Espainiako belaunaldi batzuetan, seme-alabek beren gurasoek baino bitzita % 40 luzeagoa izan dute. Gainera, immigrazioa etengabekoa da gure populazioetan. Beraz, populazio-eredu egonkor baten oinarritzko elementu horiek

ez dira errealitatean gertatzen. Eta, horrenbestez, 2,1 hori ez da beharrezkoa: 1,75era ere jaits daiteke heriotza-tasa aintzat hartuz gero, eta 1,5era, immigrazio-hartzaile garbiak diren gizarteetan, egungo populazioari eusteko. Bestalde, jaiotza-tasari dagokionez, batzuetan handiagoa da, eta beste batzuetan txikiagoa; beraz, ez du zentzurik urtero zorioneko 2,1eko erreferentzia hori erabiltzeak. Askoz zentzuzkoagoa dirudi, beti beteko ez bada ere, heriotza baino jaiotza gehiago egon dadin desiratzea.

Beraz, areto honetako inork ez dezala berriro aipatu 2,1 delakoa, mesedez. Gainera, zer dela-eta eutsi behar diogu egungo populazioari? Katalunian, bi milioi lagun bizi ziren 1900ean; 1980tik 2000ra bitartean, sei milioi, eta gaur egun, zazpi milioi eta erdi. Drama larria ote litzateke 6,7 milioira jaistea? Munduko populazioari buruzko aurreikuspen guztiek diote XXI. mendeko uneren batean jaisten hasiko dela, 2070etik edo 2080tik aurrera. Baina munduko leku guztietan ez da berdin jaitsiko: ekialdeko Europan, adibidez, jaisten ari da dagoeneko; mendebaldeko Europan, berriz, 2025etik aurrera jaitsiko da, seguruenik. Zalantzarik gabe, munduko populazioak behera egingo du etorkizunean, eta alferrik da helburu ez-errealistak ezartzea.

19

Eta galdera gehiago ere badituz: Zergatik behar da ordezeko bat hiltzen den pertsona bakoitzeko? Populazio aktiboak ere hala eskatzen al du? Duela urte batzuk, Kataluniak, Euskadik eta Espainiak munduko jaiotza-tasarik txikienak zituztenean (1,15 ume emakumeko), hau galdetu ohi zidaten: "Baina, Anna, zer gertatuko da 20 urte barru? Nork egingo du lan?" Katalunian, 1995ean jaio ziren 53.000 haurrek 22 urte dituzte gaur (1975ean, ordea, 110.000 jaio ziren). Hain gutxi izanik, irudi luke aukera ugari izan behar litzuketela, soldata bikainak, eta abar. Eta, hala al da? Bada, ez: "ez-ez" belaunaldi bat daukagu (ez ikasi, eta ez lan); atzerrira ustez exodoan doan belaunaldi bat. Zer gertatuko zatekeen bi aldiz gehiago jaio izan balira? Ez da erraza irudikatzea. Eta gerora begira, ba al daki inork zenbateko populazio aktiboa beharko dugun? Robotizazioa eta beste aurrerapen teknologiko batzuk direla medio, oso litekeena da lanpostu asko desagertzea, juxtu munduak populazio gazte gehien daukan unean, bai zenbaki erlatiboetan, bai absolutuetan. Egungo gazte-belaunaldi oparo horien eskaintzak luzaro iraungo du mundu osoan; etorkizuneko lan-eskaintza, aldiz, ez dakigu nolakoa izango den.

Ez badakigu zenbateko populazio aktiboa beharko den, ez da zentzuzkoa langile asko sortzeko eskatzea, haien familien kontura, eta gero ikusiko dugu. Ez zait bidezkoa iruditzen gizaki-ekoizpena egokitzea armadaren, ekonomia-aren eta abarren premia

auskalokoen arabera. Eta gaizki irudituko ez balitzait ere, jakin egin behar genuke zein diren premia horiek. Hona adibide bat. Espainiako armadak errekrutatze-sistema ("kintoak") erabiltzen zuen: bazekien zenbat behar zituen, eta zenbat hutsune bete behar ziren. Baina nahitaezko soldadutza kendu eta armada profesionala antolatu zuten. Espainian ez zuten aurkitzen nahikoa hautagairik, krisiaren aurretik bederen, eta Latino-amerikara hedatu zuten errekrutamendu-eremua. Zertarako balioko ote zigun, beraz, 20 urte lehenago kinto-kupoa betetzeko adina mutil sortzea, gero haien beharrik izango ez bazen? Ezertarako ere ez.

Nire ustean, oso kontu delikatua da gizaki-ekoizpena, zeina, momentuz behintzat — eta jarraitu dezala!—, gurasoen esku baitago. Hain juxtu ere, pertsona horien interesei eman behar zaie lehentasuna. Baina behin umeak, pertsonak, sortuta, eskubide osoa dute ahalik eta bizimodurik onena izateko. Eta horretan saiatu behar dugu.

Nik ez dut inolako politika demografikoren alde egiten. Demografiaren atal bat heriotzari eta biziraupenari buruzkoa da. Hor ez dago eztabaidarako tarterik. Osasun-politikek, berriz, ze dute justifikaziorik behar; ezin da honelako proposamenik egin: "Orain jende zahar asko dagoenez, murriztu egingo diet dialisirako eskubidea, asko kostatzen da eta". Horrelakorik ezin da onartu. Beraz, osasun-politikak ez dira politika demografikoak.

Gero, migrazio-politikak ere hor daude. Nire iritzian, horiek ere ez dira demografikoak. Migrazio-politikek lotura estua dute nazionalitate-agiria eskuratzearekin, integratzearekin, eskubideekin, herrialde batera sartzeko moduekin... Hori guztia lan-merkatuari dagokio gehiago; norabait iristean, behintzat. Nire ustean, hori ez da politika demografiko bat. Esaten digutenean migratzaileak behar ditugula demografiak funtzionatzen ez duelako, azalpen-mekanismoak falta dira hor. Migratzaileak behar baditugu demografiak funtzionatzen ez duelako, galdetu beharko da zergatik ez duen funtzionatzen, zer migratzaile-mota behar ditugun, non eta zertarako. Migrazio-politikak existitzen dira, izan ere. Migrazioen tratamendua politikoa da, baina ez da politika demografiko bat.

Katalunia, adibidez, immigratzaileen harrera-lurra izan da, eta da, berez. Elementu endogenoa da immigrazioa; hots, immigrazioagatik ez balitz, Katalunia ez litzateke Katalunia izango, beste zerbait baizik. Immigrazioa Kataluniako birsortze-sistemaren osagaietako bat da, alor kulturean, ekonomikoan, antropologikoan..., edozertan. Baina

hori ez da politika baten emaitza, baizik eta sistemaren konfigurazioarena, era jakin batean funtzionatzen duen gizarte batena. Politikarik ez da inoiz egon.

Gero, demografiaren hirugarren alderdia daukagu: ugalkortasuna. Nire iritzian, ez da behar ez jaiotza-tasa ez ugalkortasuna sustatzeko politikarik, ezta jaiotza-kopuru jakin bat (handia edo txikia) lortzeko politikarik ere. Aitzitik, uste dut jendeari, taldeei, familiei laguntzeko politikak behar direla.

Horra, bada, nire jarrera: ugalkortasuna areagotzeko politika demografikorik ez! Beti gongo naiz horren aurka. Familia-politikak? Bai!

FAMILIA-POLITIKAK

Zer da familia? Gogoan dut izen hau zuela Emakumearen Institutuentzat egin nituen lehenbiziko lanetako batek: "Bateragarriak al dira emakumearen emantzipazioa eta familiaren babesak?". Nire ondorioa izan zen familia zer den definitzea, eta horren araberakoa izango da erantzuna. "Gizona soldata-ekarle, emakumea etxekoandre" baldin bada familia-eredua, ezinezkoa da emakumearen emantzipazioa. Aldiz, familiaren babesak esan nahi badu gurasoen eta seme-alaben arteko harremana bizitzaren aro guztietan zaintzea, eta mendekotasunen bat duten pertsonen edo ahuldaderen bat dutenei laguntzea..., iruditzen zait familiaren babesak emakumearen emantzipazioaren aldekoa izatez gain beharrezkoa ere badela. Izan ere, emakumeak bere gain hartu behar baditu karga horiek, nekez ekin ahal izango die beste egiteko batzuei.

21

Kontua ez da familia babestea, baizik eta familiaren alderdi batzuk, familiaren funtzio batzuk. Gainera, dagoeneko familia ez da aita, ama eta seme-alabak. Geroz eta urriagoa da eredu hori. Familia-mota guztietatik, parte txiki bat baino ez dira horrelakoak. Ia 100 urte bizi gara, eta zenbat irauten dute seme-alabek gurasoen etxean? 20-25 urte? Bizitzaren ugaltze-aroa oso laburra da, eta gazteak lehenago emantzipatuko balira are laburragoa izango litzateke.

Kide bakarrek familiaren kopurua hazten ari omen da. Oximoron bat da baieztapen hori. Egiazki hazten ari dena zera da, seme-alabak badoazelako, ezkontidea hiltzen delako, dibortzioagatik edo dena delakoagatik pixkanaka desagertuz doan familia klasikoaren hondarra. Beraz, familia-politikaz ari garenean, zer familia-motaz ari gara? Denok gara familia. Bakarrik bizi direnak ere familia dira.

Azken batean, pertsonen bizitza pribatuko eremuari eta ingurukoekin dituzten harremani deitu dakieke familia. Harreman horiek odolkidetasunezkoak izan daitezke, edo ez. Duela urte batzuk jakin nuen, Euskadin, adineko jendearentzako laguntzen artean onartzen zutela familiakoak ez diren zaintzaileek ere senideen eskubide, laguntza... berberak izatea. Oso irizpide originala eta positiboa iruditu zitzaidan.

Niretzat, familia-politika haurrentzako politikak dira batez ere, baina beste hauek ere bai: genero-politikak, pobreziaren aurkako politikak, immigratzaileak integratzeko politikak eta abar.

Familia belaunaldien arteko elkartasun-eremua da, eta garbi ikusi da hori Espainian azkeneko krisian; baina indarkeriaren, zapalkuntzaren eta hertsapenaren eremua ere bada. Familiaren barruan izaten dira haurren aurkako abusu gehienak, eta, urtero, ehunka emakume eta haur asko hiltzen dira etxe barruko indarkeria dela eta.

22

Niretzat, hau da familia-politika: familiak ondo egiten duen guztia sustatzea, laguntzea eta pizgarritz hornitzea, batetik; bestetik, familian izaten den jokabide eta gertakari gaitzesgarri oro kontrolatzea, saihestea eta, behar izanez gero, erreprimitzea.

Kontziliazio-politikez, ez naiz jardungo. Horretan, oso zuhurra izan ohi naiz, batzuetan memelokeriaz memelokeria ibiltzen garelako: orain, Europako ordutegia; orain, zaintza partekatua. Dena nahi dugu modu berekoa izatea; denei aplikatu nahi diegu errezeta bera, zorrotz, baina batzuetan ez du funtzionatzen. Orain, familia batzuetan, denbora banatuz banatzen dituzte ardurak: batek goizez lan egiten du, eta besteak arratsalde. Seietarako denak etxera? Utikan! Okerragoa izan daiteke hori, familia-itun guztiek ez baitute berdin funtzionatzen.

Hasieran esan dizuet, "Ahaztu demografia!". Bukatzeko esango dizuet, "Gogoan izan demografia!". Gogoan izan demografoak, soziologoak, inon diren ikertzaile guztiak..., eta egin azterketa zorrotzak, onak eta zehatzak pertsoneri eta gizarteari eragiten dieten politiken ondorioez. Erraza da beste herrialde bati politika bat kopiatzea, baina, gero... Laburbilduz: ondo aztertu gauzak!





5.

FAMILIAK ETA FAMILIA-POLITIKAK FRANTZIAN. **ZER ALDAKETA IZAN DIRA?**

CLAUDE MARTIN

24

Familia-politikek familiaren aldaketei erantzuten al diete? Eta zer neurritaraino? Erantzuna baiezkoa bada, zuzeneko lotura egongo da politika publiko horien zehaztapenaren eta balantze demografikoen, baita azterketa soziologikoen, artean. Horrek esan nahiko luke demografia «Estatu-zientziazat» jotzen dela (Lenoir, 2003). Baina familiak izan dituen aldaketei buruzko datuak lotura horren azalpenaren parte bat besterik ez dira, eta horrek borroka ideologiko bat gutxienez adierazten du. Familiaren aldaketei emandako erantzuna baino gehiago dira familia-politikak: lehentasunezko arazo publikoak zehaztu eta eraikitzeko borrokaren emaitza dira, eragile askoren esku-hartzea tarteko dutela, hala nola politikariak eta haien jarraitzaileak, familia-interesen defendatzaileak (familia-elkarteak, adibidez), hedabideak... Esana dugunez, lehendik ere, Ongizate Estatuaren elite batek, alor horretako espezialista diren goi-mailako funtzionarioz osatua, partaidetza bereziki garrantzitsua izan zuen gai horretan (Martin, 2010).

FAMILIA-EREDUAREN ALDAKETAK: JOERA NAGUSIAK

25

Munduko beste herrialde askotako familiek bezala, Frantziakoek ere aldaketa demografiko nabarmena izan dute XX. mendean, aurreko mendeetan baino askoz ere sakonagoa, egutegi eta erritmo aldakorraz betiere. Aski ezagunak dira joerak: familiek ume gutxiago dituzte, ez daude ezkontzan hain sistematikoki oinarrituak, ezegonkorragoak dira, eta, batez ere, sexuen araberako rol-banaketa, poliki baina zalantzarik gabe, aldatzen ari dira.

Ugalkortasunak, hasteko, jaitsiera handia izan du: bigarren mundu gerraren ostean, emakume bakoitzak hiru seme-alaba izaten zituen, batez beste; 1993an, berriz, 1,65. Ondoren, nabarmen egin zuen berriro gora batezbestekoak (bi seme-alaba emakumeko, datu egonkorra 2010etik 2013ra), eta Europako lehen postuan jarri zuen Frantzia. Azken urteei buruzko datuek adierazten dute ugalkortasun-tasak

berriro behera egin duela: 2014an, 820.000 ume jaio ziren; 2015ean, 800.000, eta 2016an, 785.000. Horrenbestez, 2014ko ugalkortasun-tasa (2) 1,96ra jaitsi zen 2016an. Nabarmentzekoa da, bestalde, ezkontzatik kanpoko jaiotzen kopuruak etengabe egin duela gora mende-erdi baino gehiagoko epe horretan, eta hamar jaiotzatik sei direla gaur egun. Ezkontza-tasak ere aldaketa handiak izan ditu: hasieran, jaitsiera nabarmena izan zuen (1946an, 500.000 ezkontzatik gora; 1990eko hamarkadaren hasieran, berriz, 250.000); gero, gora egin zuen apur bat, 2000ra arte (300.000 ezkontza); ondoren, behera berriro, eta 2015ean eta 2016an behera jo zuen (220.000 ezkontza pasatxo). Ezkontzen diren bikoteen kopuruaren gainbehera hori ezkondu gabe elkarrekin bizi direnen kopuruaren gorakadak konpentsatu du (2015ean, bost bikotetik bat "elkartze librean" bizi zen; 1962an, aldiz, % 3 besterik ez), 1999an PAC delakoa (Elkartze Itun Zibila) martxan jarri zenetik.

Dibortzioak ere aldaketa sakona ekarri zien Frantziako bikoteei, eta etengabe igo da dibortzioen kopurua 1975eko erreformatik aurrera, hau da, Elkarrekiko Adostasunaren Printzipioa berriro indarrean jarri zenetik: 1976an, 60.000 dibortzio pasatxo ziren, eta 2013tik aurrera, urteko 120.000 inguru. Honenbestez, guraso bakarreko familien kopurua ere handitu egin da. Dibortzioak eta banantzeak dira halako familia-egoeren eragile nagusia, non guraso bakar batek (ama, gehienetan) bereganatzen baitu seme-alabak zaintzearen zama eta erantzukizuna. Egoera horiek ahuldu egiten dute familiaren ekonomia, batez ere guraso bakar diren emakume horiek lan-merkatuan izan ohi duten posizioa ikusirik.

Aldaketa sakon horiek zenbait desafio garrantzitsu plazaratu dituzte:

1/ Sexuen arteko hitzarmena aldatu egin da, Bigarren Mundu Gerra osteko eredu nagusia desagertzean (gizona, soldataren ekarle; emakumea, etxeokandrea). Emakumeak lan-merkatura masiboki iritsi dira, eta soldata-berdintasunaren eta lanerako aukera bera izatearen alde borrokatu dira, baina horrek ez du berekin ekarri etxeoko egitekoen eta zaintza-lanen bestelako banaketa bat, berdintasun handiagokoa, gizonen eta emakumeen artean.

2/ Belaunaldi berriak helduarora iristeko trantsizioa luzatu edo atzeratu egin da; lan-merkatuaren egoera dela-eta zaila zaie independentzia ekonomikoa edo etxebizitza propioa izatea.

3/ Bizitza-luzera eta bizi-itxaropena handitu egin dira, eta horrek langile aktiboen familiei zama geroz eta handiagoa dakarkie, gurasoek hainbeste zahartzean autonomia galtzen dute eta.

FRANTZIAKO FAMILIA-POLITIKEN BILAKAERA

Aldaketa horiekin batera, botere publikoek «familia-politika» edo «familien politika» deritzon berariazko politika publiko bat jarri zuten martxan, bi mundu-gerren arteko epeaz geroztik. Lehentasunak, alabaina, nabarmen aldatu dira: 1930eko hamarkadatik bigarren mundu-gerra ondorengo lehen urteetara, jaiotza-tasaren eta haurren heriotza-tasaren aurkako borroka lehenetsi zen; 1970eko hamarkadaren erdi aldera, berriz, krisiak gogorren astindu zituen gizarteko sektoreetara berdintasuna eta aberastasuna bideratzea zen helburu nagusia; 1990eko hamarkadatik aurrera, azkenik, geroz eta emakume gehiagoren jarduera profesionala eta familia-bizitza uztartzeko xedeak lehenetsi ziren.

27

Aldaketa horien berri emateko eta prozesu horren etapak bereizteko, lortu nahi diren helburuetan elkarri kontrajarritako bi kontzeptu-bikote proposatu genituen^{II} (Martin, 2010):

- Alde batetik, familiarismoaren eta indibidualismoaren arteko aurkaritza dugu. Beste hitz batzuez esanda: edo familia «gizartearen oinarrizko erakundetzat» jotzen da eta hura babesteko familia-politikak onartzen dira, edo familietako norbanakoei ematen zaie lehentasuna, batez ere emakumeei eta haurrei, baita adinekoei ere.
- Beste alde batetik, unibertsaltasunaren eta hautakortasunaren arteko aurkaritza dugu. Bi lehentasun desberdin adierazten dituzte kontzeptu horiek: edo haurrak dituzten familia guztiei ematen zaie laguntza, eta, ondorioz, lehentasuna eman umeak dituzten familiei ez dituztenen aurretik, edo familia behartsuenak lehenesten dira, halakoen familia-bizitzaren arriskuak direla-eta botere publikoen babesa behar dutela iritzita. Azken batean, bi ikuspegi kontrajarriren aurrean gaude: berariazko familia-politika, batetik, eta familiari egokitutako gizarte-politika, bestetik.

Sortzetikoak dira aurkaritza horiek, eta gatazka ideologiko nabarmenak eragin dituzte familia-politikak antolatzeari ekin zitzaionetik. Horrez gain, agenda politikoaren lehentasunen berritze-mailaren arabera, etapei erreparatzeko aukera ematen dute, hots, unibertsaltasunetik hautakortasunerako eta familiarismotik indibidualismorako bilakaera aztertzeo aukera. Bereizketa horiez baliaturik, lau etapa nagusi bereizi ditugu (ikusi 1. taula).

- 1945-1965: «Familia-politikaren urrezko aroa» deitu izan diote inoiz garai horri. Alde batetik, familiarismo trinkoa zuen ezaugarri, eta familia-mota jakin bat aldarrikatzen, familia nuklearra edo «gizona soldata-ekarle eta emakumea etxeoandre» ereduaren arabera. Beste alde batetik, nolabaiteko unibertsalismoa zuen, zeinaren arabera gutxienez bi ume zituzten familia guztiei lagundu behar baitzitzaien, familiaren diru-sarrerak kontuan hartu gabe. Horren helburu nagusia hau zen: jaiotza-tasa sustatzea, familia-prestazio unibertsalen sistema baten bidez konpentsatuz, partzialki, haurrak haztearen kostua. «Baby boom» deritzon garaiarekin bateratsu izan zen sasoi hori; horrek azaltzen du, partzialki bederen, gizarte-babesaren arlo horretara bideratutako gastuen zenbatekoa. 1950eko hamarkadaren erdi aldera, gizarte-babeserako gastuen erdia baino gehiago jaten zuen familiaren alorrak; 2016an, aldiz, % 8.

- 1965-1975: Bigarren aroan, esanahi berezia izan zuen emakumeen eskubideen aintzatespenak, eta unibertsalismoa eta indibidualismoa uztartu ziren horrela. Emakumeen mugimenduen aldarrikapen horrek goitik behera eraldatu zuen familia-zuzenbide zibila, eta garrantzizko zenbait aldaketa etorri ziren, bata bestearen atzetik: ezkontza-erregimenena, 1965ean; gurasoen aginpidearen erreforma, 1970ean; seme-alabatasunarena, 1972an; dibortzioarena, 1975ean, eta sexualitate-alorreko zuzenbidearen erreforma (Neuwirth Legea, 1967an, eta Veil Legea, abortuari buruzkoa, 1975ean).

- 1975-1985: Xede politiko berri bat ageri zen agendan hirugarren aro honetan: desberdintasunei aurre egitea eta «hazkundetik kanpo geratutakoak» artatzea. Berdintasun-asmo horrek zenbait neurri berri ekarri zituen familia-politikaren alorrera, guztiek ezaugarri bera zutela: lehentasuna familia behartsuenei ematea, batez ere guraso bakarrekoei, erabilgarri zeuden baliabideen arabera betiere. Hautakortasunaren eta familiarismo zuhur baten arteko konbinazioa

izan zuen ezaugarri sasoi hark. Familiaren definizioa lehen aroko oso bestelakoa zen bigarrengean, non familia-egituren eta -egoeren aniztasuna onartzen baitzen; hori zela eta, familia-politiken xedek eta hartzailak ere ugariagoak ziren, eta arreta berezia egiten zitzaien familia behartsuenei.

- 1985-2005: Langabezia masiboaren hedatzeak eta gizarte-babeseko gastuak kontrolatzeko nahiak aldatu egin zituzten, pixkanaka, familia-politikak, eta enplegu-politikak sustatzeari eman zitzaion lehentasuna laugarren aro honetan. Helburu berri batzuk sortu ziren; besteak beste, bizitza familiarra eta profesionala bateragarri egitea. Ideologia berri bat ekarri zuen berekin asmo horrek: «hautatze librea». Gure ustean, indibidualismoaren («hautatze librea» eta neurrien indibidualizazioaren^{III} sustapen gisara ulertua) eta hautakortasunaren konbinazioa gertatu zen sasoi hartan, hau da, baliabideak egoera-aniztasunera egokitu ziren eta gizarte-dualismoa sendotu zen.

	Familiarismoa	Indibidualismoa	Parentalismoa
Unibertsaltasuna	I: 1945 – 1965 Frantziako familia-politikaren urrezko aroa	II: 1965 – 1975 Emakumeen eskubideen aintzatespena	V: 2005 – 2015 Guraso-jarduerari laguntza unibertsala emateko borondatea
Hautakortasuna	III: 1975 – 1985 Familia behartsuenak identifikatzea	IV: 1985 – 2005 Emakumeen enplegua eta bizitza familiarren eta bizitza profesionalaren bateragarritasuna sustatzea, «hautatze librea» deritzon politika dualaren bidez	Vbis: 2005-2015 Guraso arduragabeak identifikatzea

III Beste maila batean, baina indibidualizazioaren logikaren arabera betiere, aipatzekoa da Elkartasun Itun Zibilak 1990eko hamarkadaren amaieran eragin zuen aldaketa (Commaille & Martin, 1999).

Azken aroan sortutako politikak, berriz, gurasoak eta haiei dagozkien eginkizunak baliatzeko moduak ditu xede nagusi.

GURASOTASUNAREN GAIA, PLAZARA

Badira hogeit bat urte Frantziako botere publikoek^{IV} zenbait neurri, programa eta baliabide erabiltzen ari direla honetarako: gurasoek bere seme-alabekiko heziketa-, zaintza- eta gizarteratze-lana egin dezaten laguntzea (Martin, 2010; Neyrand, 2011; Hamel, Lemoine, Martin, 2012). Familiaren alorreko jarduera publikoko eremu berri bat osatzen dute neurri horiek, zeinei "gurasoei laguntzeko politika deitu izan baitzaie (parenting support policy, ingelesez).

Frantzian, eragile hauek hartu zuten beren gain politika hori: Estatuak, zeinak printzipioak eta helburuak ezartzen baititu; Familia Laguntzen Kutxa Nazionala (CNAF) eta lurraldekako erakundeek, zeinak finantzatzaile nagusiak baitira, eta, azkenik, gurasoei proposamenak aurrez aurre egiten dizkieten zenbait elkartet (xehetasun gehiago: Martin, 2018). Estatuaren eta CNAFen arteko hitzarmen-esparru batekoa da politika hori, eta Helburuen eta Kudeaketa Hitzarmenek (COG) ezartzen dituzte politika horren egitura nagusia eta baliabideak. Politikaren helburu nagusiak hauek dira: «Haurren eta haien gurasoen ongizatea sustatzea, eta aita-amei beren beren guraso-eginkizunetan laguntzea» (HCF, 2016, 7. or.) eta «familiaren eta gurasoen eginkizunak aurrera eramateko egoeren aldaketei erantzutea», betiere haurren interesak aintzat harturik (CNAFen oharra, HCFren txostenari erantsia, 2016).

Gurasoei laguntzeko politika horren sorrera eta instituzionalizazioak, oraindik baliabide urriak dituen arren (150 milioi euro urteko, Gizarte Segurantzaren familia-arloko 50.000 milioiekin alderatuta), adierazten ote du Frantziako familia-politikak eralda ditzakeen fenomeno guztiz berri baten aurrean gaudela? Ez ote litzateke zuzenagoa pentsatzea politika horrek egokitu eta berritu egiten dituela lehendik indarrean zeuden neurriak eta xedapenak, zeinetatik batzuk tradizio luzea baitute sektore herrikoiaren edo klase dominatzaileen hezkuntza- eta osasun-arauetatik urrunen dauden sektoreen hezkuntza-jardunbideak zedarritzen? Ez ote dator hortik gurasoei laguntzeko eta haurrak babesteko politiken eta osasun publikoaren arteko mugen lausotasuna? Beste hitz batzuekin esanda, familia-politikaren zutabe berri

^{IV} Hain juxtu ere, Europako beste herrialde askotakoek bezala. Ikusi Daly, 2015 . Martin 2014.

bat ote da gurasoei zuzendutako politika hori? Familiarismoaren revivaltzat jo behar genuke, ala, berriki zenbait egilek zioten bezala, balio-planaren erreferentzia berri baten, «parentalismoa»ren, adierazpentzat?

Hala dio, adibidez, Marie-Agnès Barrère-Maurisonek (2007). Familia-moten eta lan-merkatuaren eraldaketa bikoitz hori oinarri harturik, gizarte-loturak (ezkontza-lotura, lan-kontratuaren estatutupeko lotura) ahuldu egin direla dio egile horrek, eta arazo berri bat aurkezten digu: haurren babesa eta gizarteratzea. «1990eko hamarkadaren hasieratik, familiako bizimodu tradizionalen hausturak berekin ekarri du, pixkanaka, haurrenganako ardura areagotzea, arriskupean baleude bezala. Haurrak dira familia-zuzenbidearen eta familia-politiken erreferentzia-unitate... Ordena sozial berri horri «parentalismo» deitzea proposatu dugu guk, gurasotasuna harremanen ardatz bihurtu baita, familia-harremanena ez ezik baita gizarte-harremanena ere (op. cit., 22. or.). Ezin ahantzi, bestalde, Elisabeth Beck-Gernsheimek zioena (1991), gogora ekarriz «guraso-izaera arduratsua araua» eta mundu bat non «haurren zorientasuna alor pribatuko eginkizun garrantzitsutzat eta gurasoen —amarena, batez ere— ardura pertsonaltzat jotzen baita» (Beck-Gernsheim, 1991, 181. or.).

31

Honenbestez, gurasoak bihurtu dira politika publikoa eratzeko ahaleginaren ardatz, eta «gurasoen arazotzat» jo daiteke gaia. Baina, zehazki, zein da arazoa? Ahalmen-arazoa ote da, edo gurasoen eskumenik ezarena, gizarteratze-metodoaren arazoa, prestasun-arazoa? Haurrei eskaintzen zaien edo ez zaien denbora ote arazoa, edo haiekiko konpromiso-maila, edo haiengan nahikoa ez dela inbertitzen? Edo, besterik gabe, izaera-desberdintasuna da arazoa («guraso-izaeraz» ari gara), rol horretan jardutea bermatzen duten baliabideak...?

Gaur egun nagusi bilakatu den kezka bat areagotu izanaren emaitza izan daiteke trantsizio hori. Haurren etorkizunean eta ongizatean gurasoen jarduerak dituen ondorioei buruzko kezka ari gara eta, hedaduraz, gizarte osoaren ongizatean eta kohesioan dituen ere bai. Hamarkada bat edo bi barru «arrisku sozial berri» batzuk ez agertzeko bitarteko bat izan daiteke kezka hori. Baina elkarren aurka ageri zaizkigu parentalismo horren bertsio unibertsalista eta bertsio “bideratua”, eta hortik dator politika horren anibalentzia, oraingo, eta hor dago eragileen arteko ideia- eta ikuspegi-lehiaren koska, baldin eta ez bada zirriborrotzen unibertsalismo

orekatu baten aldeko konpromisorik (denontzat jardutea, baina, batez ere, premia handia dutenentzat) eta trantsizio geroz eta konplexuago eta artikulatuagoetarako laguntzarik (trantsizio ekonomikoak, familiarrak, biziaren artekoak...).

ZERK ALDARAZI DU FAMILIA?

Familiak eta familia-politikak izan dituzten aldaketak alderatuko bagenitu, haien arteko lotura ez litzateke zuzenekoa edo mekanikoa izango, ezta gutxiagorik ere. Amaitzeko, familian zenbait aldaketa garrantzitsuren eragile izan den eta bizitza pribatuaren alorreko politika publikoetarako desafio gisara jarduten duen faktore bat aipatu nahi dugu beste behin ere: lanaren eta enpleguaren eremua.

Hogei urteren ondoren, ohitura bihurtu da jada lanaren eta familiaren arteko interakzioak bizitzaren bi alor horien artikulazioaren arabera laburtzea, alor bakoitzak bere dinamika propioa duela jakinik. Nola egin bateragarri familiako bizitza eta bizitza profesionala? Nola artikulatu biak, enpleguen prekarietatea eta malgutasuna presioa areagotzen ari diren honetan? (Le Bihan et Martin, 2008 ; Knijn et al., 2013). Galderaren irismena zabaldu eta beste honetaz ere egin genezake gogoeta: "Zer interakzio dago bi eremu horiei eragiten dieten aldaketen artean? Bereiz al daiteke zeinek egituratzen eta berregituratzen duen bestea? Gure ustean, zilegi da erantzutea lanaren eta enpleguaren alorreko aldaketek gehiago eragiten diotela familiaren esparruari familiaren alorreko aldaketek lanari eta enpleguari baino, eragin horien helmen zehatza neurtzea zaila den arren; izan ere, prozesu sozial zabalago batean daude, zeinak lotura baitu, zalantzarik gabe, Norbert Eliasek epe luzerako «zibilizazio-prozesuaz» egindako deskribapenarekin [Elias, 1975].

Robert Castelek, berriz, ez du argi ikusten familiako bizitzaren aldaketak «eraldaketa handiaren» ondorio direnik [Polanyi, 1983], eta nahiago du nolabaiteko autonomia duen prozesu gisara azaldu^V. Guk, berriz, zera diogu, familiako bizitzak izan dituen aldaketak batez ere lan-munduaren aldaketa handi horren ondorio direla, eta aldaketa

^V Hona zer zioen Robert Castelek 2009an: «Bistakoa da funtsezko aldaketa gertatu dela familiako harremanetan, kontraktualizazioari dagokionez, 1960ko hamarkadaren erditik aurrera, lan-munduko erakundeei eragin dieten aldaketekin kronologikoki bateratsu gertatu ere; dena dela, ezin da horregatik kausalitate-harreman zorrotzik aurkitu, ez norabide batean, ez bestean Hala eta guztiz ere, familiaren eraldaketak daukan garrantzia lan-munduari eragiten dionarena bezain funtsezkoa izan daiteke, eremu biologiko eta sozialarekiko lotura bideratzen duen familia-egitura tradizionala zalantzan jartzen baitu» (geuk azpimarratua) [Castel, 2009, 47 or.]. Hona Robert Casteli egindako omenaldi batean proposatu ziren zenbait ideia (Castel eta Martin, 2014).

horrek gizartearen eta familiaren arteko loturak josten eta desjosten dituela, faktore hauen arabera: enplegua edukitzea edo ez, autonomia eta hori hornitzen dituen baliabideak izan ala ez, lan-baldintzak eta -ordutegiak, zerbitzu publikorik badagoen ala ez mendekotasuna duten familia-sareko pertsoez (haurrak eta adinekoak, gaixoak eta desgaituak, eta abar) arduratzeko. Ikuspegi horretatik aztertuta, familiak eta haietako kideen ibilbideak, baina, batez ere, familiako harremanak eta generoen eta belaunaldien artekoak, behaketa-eremu gisara ageri zaizkigu, lurralde enpiriko baten modura, non islatzen diren, ispilu batean bezala, norbanakoek jasaten dituzten eraldaketa orokorrenak. Bigarren mundu-gerratik gaur egunera bitarte lanean eta enpleguan gertatu den «eraldaketa handia» aldagai independente bat da, gure iritzian, eta horren argitan uler ditzakegu familia-alorreko aldaketak. Bat dator arazoa aztertzeko modu hori Norbert Eliasek bere bizitzaren amaiera aldera zirriborratu zituen ideiekin.

«Sarritan, gizakiaren harreman sozial guztien oinarri gisara aurkezten dizkigute familiako harremanak. Baina hori ez da zuzena. Familiaren egitura —hau da, gizon, emakume eta haurren arteko harreman-sistema, sozialki ezarria— aldatu egiten da, bera ere partaide duen gizarte zabalago batekin batera eta harekiko elkarreraginean. [...] Guraso edo seme-alaba gisara, edo senar zein emazte modura gizabanakoen artean dauden harremanen aldaketak ezin dira bereizi herri bateko edo estatu bateko biztanle gisara gizabanakoen artean dauden harremanen aldaketatik.» (Elias, 2010, 107. or.).

Honenbestez, uztartu egin behar dira “soldata-gizartearen” gorabeherak eta familiaren auzia, baldin eta ulertu nahi badira dakartzaten eraldaketak edo familia-ereduen aldaketak —batez ere 1960ko hamarkadaz geroztikoak—, aintzat harturik lanaren eta enpleguaren alorretan izan diren transformazioak eta ikusirik gizarte-babesak izan duen garapena. Gainera, lagungarri izan daiteke hori gurasotasunaren aldeko jardueran eragozpen bat saihesteko, alegia, gizarteratze primarioan dauden oztopoen erantzule gurasoak bihurtzeko tresna ez izatea, desafioa kolektiboa eta politikoa baita. Nola ari ote dira gure guraso-belaunaldiak beren semea-alabak haziko diren mundua prestatzen?

ERREFERENTZIAK

Barrère-Maurisson, A. 2007. 2007, *Familialisme, Féminisme et “Parentalisme”*: trois âges de la régulation sociale, Documents de travail du Centre d'économie de la Sorbonne, 43. zk.

Beck-Gernsheim E., 1991. «La construction sociale de la condition de parent», in de Singly F. eta Schultheis F., *Affaires de famille, affaires d'État*, Nancy, éditions de l'Est, 177-187 or.

Castel, R. 2009. *La montée des incertitudes. Travail, protections, statut de l'individu*, Éditions du Seuil, Paris

Commaille, J., Martin, C. 1999. «Les conditions d'une démocratisation de la vie privée», in D. Borrillo, E. Fassin eta M. Iacub (zuzend.), *Au-delà du Pacs. L'expertise familiale à l'épreuve de l'homosexualité*. Paris, PUF (2. argitalpena, 2001), 61-78 or.

Daly, M. 2015. “Parenting Support as Policy Field: An Analytic Framework”, *Social Policy & Society*, 14:4, 597–608

Elias, N. 1975. *La dynamique de l'Occident*. Paris, Editions Calmann-Levy,

Elias, N. 2010. *Au-delà de Freud. Sociologie, psychologie, psychanalyse*. Paris, Editions La découverte.

Hamel M-P, Lemoine S. eta Martin C. (zuz.), 2012. *Aider les parents à être parents. Le soutien à la parentalité, une perspective internationale*. Rapport & documents n°50 du Centre d'analyse stratégique. Paris, La Documentation Française.

HCF. (Haut conseil de la famille) 2016. *Les Politiques de soutien à la parentalité*. Avis et rapport adoptés par consensus le 22 septembre 2016. 183 orrialde. http://www.hcfea.fr/IMG/pdf/2016_10_03_Notes_parentalite.pdf

Knijjn, T., Le Bihan, B., Martin, C. (Eds), 2013. *Work and Care under Pressure. Care Arrangements across Europe*. Amsterdam University Press, coll. Care and Welfare.

Le Bihan, B., Martin, C. 2008. Le Bihan B., Martin C. (eds) (2008), *Concilier vie familiale et vie professionnelle en Europe*. Rennes, Presses de l'EHESP.

Lenoir, R, 2000. *Généalogie de la morale familiale*. Paris, Seuil

Martin C., 2010. «Les politiques de la famille», in Olivier Borraz eta Virginie Guiraudon. (argit.), *Politiques publiques. Changer la société*. Paris, Presses de Science Po, 31-55 or.

Martin, C., 2012. «La question familiale face à la montée des incertitudes», in R. Castel eta C. Martin (zuz.), *Changements et pensée du changement. Echanges avec Robert Castel*. Paris, La Découverte, «Recherches» biduma, 246-260 or.

Martin, C., 2014. «Le soutien à la parentalité : une nouvelle politique en Europe», *Politiques sociales et familiales*, 118. zk., 2014ko abendua, 9-22 or.

Martin, C (zuz.), 2018. *Accompagner les parents dans leur travail éducatif et de soin. Savoirs, questions et perspectives pour l'action publique et la recherche*. Paris, la Documentation française.

Neyrand, G., 2011. *Soutenir et contrôler les parents. Le dispositif de parentalité*. Toulouse : érès

Polanyi, K, 1983. *La Grande Transformation. Aux origines politiques et économiques de notre temps*. Gallimard, Paris (1. argitalpena, 1944)

6. EUSKAL GIZARTEAREN ARGAZKI SOZIO- DEMOGRAFIKOA

IMANOL ESNAOLA

36

Politika publikoek oinarri bat izan ohi dute: pertsona bakoitza hartzen duen sare soziala edo babes (falta zaiona osatu nahian). Babes sare hori nolakoa, politika publikoak halakoak, edo nahiago bada, arazoak non politika publikoak han. Mendebaldeko eskubideen taulak behartzen du estatua gabezia dagoenari falta duenarekin osatzera. Estatuz estatu sentsibilitatea eta ahalak ez dira berdinak, ordea. Are gehiago, zer gertatzen da arazoak agerian (agenda publikoan) ez daudenean? Edo, gaur egungo moduan, gehien nozitzen dutenak ikusezinak direnean (demagun etorkin eta pentsionista ugari)? Azken urteotan Euskal Herrian aldaketa bizkorak ezagutu ditugu, besteak beste, biztanleria zahartuaren hazkundean, lan errenten mehetzean eta aberastasunaren banaketa gero eta desorekatuagoan. Gauzak horrela, arreta handiz jarraitzekoa da zer gertatu den pertsonen eta familien egoeran.

2007az geroztik larritasun sozial handiko fenomenoaren eragina (hedadura) hazi egin da. Lehen ere baziren, baina kopuruz zein intentsitatez indartu egin

dira. Bizi izandako gertaera ekonomiko gogorrek eragin sistemikoa izan dute gizartearen egitura sozio-ekonomikoan, horrela bizi izandako krisiaren eraginak alde anitzekoak izateaz gain (enpresen itxiera, enplegu galera eta diru-bilketa publikoaren jaitsiera) katean eragin berriak bata bestearen atzetik etorri dira, elur-bola bat bailitzan, harik eta gure gizartearen alderdirik ahulenetan eragin arte (maileguarekin zorpetuak, ikasketa mailarik apalenekoak, zaintza berezia behar duten pertsonak, hilobak elikatu behar dituzten pentsionistak...).

Alta, komunitate baten biziraupenean familiak bere edozein formatan, funtzio garrantzitsua betetzen duen aldetik, pertsona bakoitzak bere inguruan duen sarearen sendotasunari arreta handiz erreparatu behar zaio. Horren nolako-tasunak (familia eredu desberdinak, egoera sozioekonomikoak, bakardadeak...) argibide handiak emango dizkigu babes sozialeko politikek aurrean dituzten erronken inguruan. Edo nahiago bada, gure zibilizazioak zaintza, ongizatea eta erreprodukzioan eragiteko duen sistema soziala zer-nola dabilen ezagutuz

jakingo dugu zertan huts egiten duen eta zertan saiatu beharra dagoen komunitateak bere bidea egin dezan.

Ezer azaltzen hasi aurretik komenigarria da gure gizartearen alderdien ahultasuna esatean zer esan nahi dugun azaltzea. Izan ere, gurean ohikoa izan da pobrezia edo bazterketaren moduko egoerak kolektibo jakinekin lotzea, gainerakoei ongizatea aitortuz (maila batean edo bestean). Aldiz, oinarri sozio-ekonomiko ahulei erreparatzen hasita, lana galdu duten edo ordain eskaseko lanak dituzten pertsonak ere sartu behar ditugu multzo horretan. Eta ohartuko gara pertsona horiek beste askori eusten dietela (seme-alabak, adineko gurasoak...), eta ondorioz hauen prekaritatea hedakorra gertatzen dela inguruan. 2008az geroztik bizi izan dugun atzeraldiak asko du alde horretatik.


Langabezia eta prekaritatearen bilakaera.
Hego Euskal Herria



1. irudia. Langabezia eta prekaritatea egoera desberdinek adierazten dute. Hona hiru tipo nagusien bilakaera, adi borondatez kontrako lan intentsitate baxuaren bilakaerari. Iturria: INE (EPA)

Eskubideak unibertsalak direlakoan ez ohi dugu lurralde mailan egon daitezkeen diferentzietan erreparatzen. Aldeak egon badaude, ordea, lurralde eremu batzuetatik besteetara. Bai eskura dauden enpleguen aitortza ekonomikoari dagokionez, bai oinarriko eskubideak gauzagarri egiteko zerbitzuen hurbiltasunari dagokionez.

Gure herrian azken hamarkadetan hiru ziklo gogor bizi izan ditugu eta lurralde mailan ere nabari dira garaiak. Lehen garai batean (gerraondoko hamarkadetan), gizona behar zuen sistema produktiboak eta emakumea erreproduktiboak. Horrela, emaztea etxean eta kotizaziorik gabe lan egitera behartua zen (legez), garapen profesionala bazter utzita. Bigarrenean, 80 hamarkadan industria handiena erori ondoren ogibide berriak sortu behar izan ziren, horrek zekarkeen guztiarekin arrisku eta gabezien aldetik. Gaur egun, ziklo berriagoan, industriak jarraitzen du sektore maskuliniatua izaten, baina atzeraldian egonik, zaintzara emandako etxeko kideek (gazte eta emakumeek batez ere) enplegu bila joan beharra izan du etxeko ekonomia osatzearren ordain apaleko enpleguak beteaz. Ziklo berria bizi dugu, baina desoreka eta bazterketa erreproduzitzeko joera indartsua adierazten ari da.



2. irudia. European erreferentziazkotzat hartzen ditugun estatuekin alderatuz, Euskal Herriak prekarietatean dagoen kolektibo jendetsua du. 2015eko argazki honek erakusten digu zein izan zen gure sistemaren erantzuna atzeraldiaren garairik gogorrenetan. Iturria: Eurostat, Gaindegiak landutako datuak

Agerikoa da, ez dela egoera bera bizi Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian. Lehenak eskubideak bermatzeko politika sendoagoak ditu, bigarrenak, aldiz, politika ahulagoak eta aurrekontu are ahulagoak. Lanbide arteko gutxieneko soldataren mailan dagoen desberdintasuna esanguratsua da (12 ordainketatan: 825,7€ Hegoalden , 1.480,3€ Iparralden), bai eta hainbat eskubide (etxebizitza, elikadura, eskolatzeta, energia...) bermatzeko estatu batek eta besteak duten legedia (edo legedia eza).

Esandako guztia eztabaida klasiko bat da mendebaldeko ongizatearen gizarteetan, Euskal Herritik begiratuta, ordea, burujabetza maila mugatua izateari lotzen zaizkio horietako batzuk (iraganeko hazkunde induzituak eta egungo politika sozialak artikulatzeko eskumen gabeziak, hala nola, pentsio sistema). Edonola ere, horrekin batera, oso aintzat hartzekoa da herri honen ongizatea eta geroa oso lotuta doazela etorkizuneko bere eraginkortasun ekonomikoari. Ikuspegi honetatik, bere egitura ekonomikoa eta lanerako adinean dagoen biztanleriak bizi dituzten prekariedade fenomenoek indarrez eragin lezateke etorkizuneko politikak finantzatzeko orduan. Ikus ditzagun gertaera nagusiak.

MUTURREKO GERTAERA SOZIOEKONOMIKOEN DEMOGRAFIARI ERANTZUTEN ARI GARA

Gure herriak muturreko gertaera sozioekonomikoak bizi izan ditu. 1960/1970. hamarkadetako hazkundeak gaur egungo zahartze tasak eragiten ditu eta garai bateko krisialdi ekonomikoen eragin sozioekonomikoek (1980.hamark.) sorrarazitako jaiotza tasa baxuak egungo gazteen urritasuna. Ondorioz, gure gizartean zahartze tasarik altuenak bat egiten du gazte belaunaldi apalenekin, eta halaber familia egitura ahulekin non haurren zaintzak adinekoen zaintzarekin bateragarri izatea ezinezkoa den fisikoki eta are zailagoa batzuen kotizazioekin besteen pentsioak ordaintzea (asmo makurra, gogotik lan egin duen pertsonen ari garenean).

Zenbait zertzelada (1991tik gaurdaino)

- 1991az geroztik Euskal Herriko biztanleria %8 hazi da, II. Mundu Gerraz geroztik bikoiztu egin da, eta hirukoiztu azken Karlistadatik.
- Jaiotza kopurua %18,5 hazi da (1991-2015)
- Aldiz, 15-29 urte arteko gazte kopurua %36 jaitsi da. (1991-2011) (256.000 gutxiago, kop.gordinetan!)
- 65 urtetik gorako biztanle kopurua 1991az geroztik %52,5 hazi da (206.000 gehiago, kop.gordinetan!)

Ondorioz, 65 urtetik gorakoak 662.000 dira (biztanleria osoaren %21) eta 15-29 urte

arteko biztanleria 450.000 inguru (1991an 710.000 inguru ziren!). Gauzak horrela, adinekoak gero eta gehiago, eta haur zein adinekoen zaintzari aurre egiteko belaunaldiak gero urriago.


Baina egoera honek ekonomian du jatorria inon izatekotan. 60 eta 70. hamarkadako hazkundeari 80ko, eta batez ere 2008ko, atzeraldia eragina jarri behar zaizkio ondoan. Ikusi dugunez prozesu hauek gora-behera demografikoak eragin zituzten bilakaera ekonomikoaren ondorioz.

BIZTANLERIAREN AKTIBITATE MAILAK ALDAKETA ESANGURATSUAK BIZI IZAN DITU, BAINA EMAITZA EZ DA BEHAR GENUENA

Biztanleriaren zahartzeak biztanlerian azken hamarkadetan ezagutu ez dugun inaktibitate tasak ekarri baditu ere, aipatzekoak dira beste fenomeno batzuk, hala nola, emakumeen aktibitate tasaren igoera, baina eredu produktibo eta sozialaren eraginez, ez gizonena bezainbestekoa, ez lurralde guztietan eta ez adin tarte guztietan.

41

Andreen artean lanaldi partziala izateko arrazoien bilakaera.
Hego Euskal Herria



3. irudia. Prekarietate ekonomikoak emakume aurpegia du. Kasuistikari erreparatu behar zaio, prekarietate hori eragiten duten egoerak ezagutzeko. Iturria: INE (EPA)


Beraz, emakumeak jarraitzen du lan erreproduktiboaren zamarik handiena izaten horrek dakarren guztiarekin, besteak beste, autonomia ekonomikoari dagokionez

(ezinbesteko autonomia ekonomikoa, askotan zaintzako ardurari erantzuteko) eta gure herriak ez du jakin izan egoera berrira egokitzen.

Zenbait datu:

- Biztanleria aktiboaren kopuru gordinak gora egin du, baina emakumeen artean igo da eta gizonen artean apaldu: 100.000 aktibo gehiago (126.000 gehiago emakumeak, 30.000 gutxiago gizonetzkoak).
- Emakumeen aktibitate tasa igo da, bai, baina industriak eragin handia duen inguruetan inaktibitatearen feminizazio maila %70 ingurukoa da.
- Eta adinaren arabera are nabarmenagoa gertatzen da aktibitate indizeen izaera erlatiboa, 20 puntu inguruko diferentzia dago gazteenen %51 eta helduenen artean %66 (30-34 urtekoa eta 55-59 urtekoak hurrenez hurren).
- Beraz, oro har, aktibitate mailak gora egin arren, emakumeen artean inaktibitate eta langabezia tasa handiagoak dira gizonetzkoen artean baino, lan bizitzaren azken urteetan batez ere.

Diru-sarrereren bilakaera per capita, dezilen arabera.
EAE, 2008/14 epealdia



4. irudia. Atzeraldi ekonomikoaren urterik gogorrenetan errenta apalenek jasan zuten zama, bestek beste, zaintza lanetara emandako kide inaktiboak dituzten familia unitateek: Iturria: Eusko Jaurlaritza

EGUN SEKTORE EKONOMIKO ERAGINKORRENAK ERABAT MASKULINIZATUAK

Beraz, aktibitate mailak igo arren, jarduera profesioaletan ageriko bereizketa dago eta emakumeak sektore jakin batzuetara iritsi ezinik gelditzen ari dira, ordain ekonomiko eta profesional handiena duten horietara, hain zuzen. Industriari lotutako lanpostuak izan ohi dira gure artean halakoak, administraziokoekin batera.

Egitura ekonomiko eta produktiboan bizi izandako aldaketak (2008az geroztik nabarmenago) emakumeen aktibitate-tasa handitu badu ere sektore prekari-zatuetan eta lan baldintza prekarioetan egin du, horrela, lan erreproduktiboari egoera eskasean garatzen den egiteko profesionala gehitu zaio duintasunari eustekotan. Baina hori ez da ongizatearen berme aurrerago ikusiko dugunez:

- Sektore produktibo tradizionalen beherakada bizi izan dugu. Behera egin dute (enpleguan ere bai), sektore industrial tradizionalak eta zerbitzu sektorean profesionaltasun handienekoak. Beraz, familia eredu hedatuenean etxeko ekonomia zigortua izan da, senarraren zein emaztearen aldetik. Kapital ihesari erreparatuz soilik batz bestea, lanaldi osoko 66.000 lanpostu galdu dira 2007 eta 2015 artean Hego Euskal Herrian.
- Bestalde, sektore ekonomikoen feminizazio mailan gora behera handiak ikusten dira: Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) Industrian feminizazio maila %21 da, zerbitzuetan %57. 2008ko atzeraldiaz geroztik sektore batzuk are gehiago maskulinizatu dira, emakume gehiago eta gizon gutxiago egon arren lan merkatuan.
- EAEko lan merkatuan lanaldi murriztuen feminizazioa agerikoa da, $\frac{3}{4}$ emakumeak dira. Finlandia eta Danimarkak baino 10 puntu gehiago gurean. Gehienek aitortzen dute lan gehiago egiteko prest daudela, baina ez dagoela eskaintzarik. 88.000 emakume dira lanaldi osoko enplegurik aurkitzen ez dutenak eta 30.000 inguruko zaintzan ari direlako lanaldi osoko lanik egin ezin dutenak.

- Horrela EAE-n familien errenta jaitsi egin da (-%13 errenta apalenen artean) 2008az geroztik, diru-sarrera apalenak dituzten horietan bereziki eta ezohiko gastuei aurre egiteko gaitasunik ez dutenen kopuruak gora egin du, bai eta gure ohiko patroien arabera elikatzeko zailtasuna dutenen indizeak ere.
- EAE-n Larrialdi laguntzen hartzaileen artean%85 unitate familiarrekin estu lotutakoak dira: etorkin gazteak (%61) eta adineko emakumeak (%24).
- Halaber, familien zorpetzea handia da eta ustekabeko ekonomikoen aurrean erantzuteko gabeziak ditu.
- Are gehiago, 125.000 pentsionista daude pobrezia atalaren azpiko diru-sarrerekin eta beste 79.000, gehienak emakumeak, alarguntasun pentsioak jasotzen.

45

Esan dugun, guztia, ordea, bere neurrian hartu behar da, izan ere, fenomeno hauek inguru geografikoaren arabera indartu eta ahuldu egiten dira. Ikuspegi honetatik aipatzekoa da azken hamarkadetan eraiki den lurralde politikak ageriko inertziak dituela adin, jatorri eta errenten segregazioari dagokionez. Eta beste alde batetik enplegua eta zerbitzuak landa guneetatik urruntzeko joera indartu egin da, honela, landa guneetan familien eta bereziki emakumeen lan aukerak ordain ekonomiko eta sendotasun profesional txikieneko sektoreak nagusitzen dira. Eta, era berean, zaintzari lotutako lanak (haur zein adinekoena) handitu.

LURRALDE POLITIKA DESOREKATZAILEAK PREKARIETATEA ERAGIN ETA FENOMENO OSAGARRIAK ERAGITEN DITU

Euskal Herria biztanleria, zerbitzu zein jarduera ekonomikoen aldetik desorekatzen ari da. Agerikoa da, desoreka honek hainbat arazo sozial eragiten duela eta oinarrizko eskubideak ez direla lurralde osoan bermatzen. Gauzak horrela, arreta handiz aztertzekoa da eremu bakoitzean zein gabezia nozitzen den. Ohikoa da landa eta hirigunearen arteko aldea. Egun bitarteko zonaldea ere badela esan dezakegu (beraz, eremu metropolizatuak, bitarteko zonaldea eta landa ingurua). Hiru horietako bakoitzak bere bereak diren aukerak eta gabeziak ditu, eta oro har

zenbat eta urrunago egon gune nagusietatik orduan eta zailtasun handiagoak zerbitzuak eskuratu edo enplegu egoki bat izateko. Ez dira gutxi egoera honi lotutako problematikak:

- Gazteen galera lurraldean: Belaunaldi gazteek sorterrria utzi behar izaten dute ikasketak medio. Baina gabezia sozioekonomikoen eraginez, mugikortasun honek ez du itzulerarik, beraz, landa eremuak biztanleria naturala galtzen ari dira.
- Emakumeen galera lurraldean: biztanleak galtzen ari diren eremuetan egitura ekonomikoa medio gehiago dira aukera baten bila sorterrria utzi beharra duten emakumeak.
- Adinekoak lurraldean, ondorioz, presentzia handiagoa dute belaunaldi gazteen galera handiagoa den eremuetan, baina osasun zerbitzuetatik edo zaintza zerbitzuetatik urrunago egoteak egoera kritikoak sortzen ditu.
- Zerbitzuen eskuragarritasuna. Hiriburuetan zerbitzuak kilometro gutxira badaude, hauetatik zenbat eta urrunago distantziak izugarri luzatzen dira. Hezkuntzari eta osasunari lotutakoak dira urruntasun sentituenak.
- Trakzioa eragiten duten jarduera ekonomikoen kokapena lurraldean: Hiriburuen aldirietan eta garraio ardatz nagusietako puntu zehatzetan kokatzen ari dira jarduera hauek, gainerako eremuetan industriaren garai bateko inplantazioa atzeraldian dago.

SINTESIA

Familia, mendebaldeko gizarteetan ezagutzen dugun eran, ahuldu egin da azken hamarkadan. Ahuldu ekonomikoki eta ahuldu zaintzarako dedikazioari dagokionez. Atzeraldi honetan, emakumeen bizkar joan da zamarik handiena (zaintzarena eta etxeke ekonomia osatzearena).

Handitu egin zaizkio ardurak (adinekoak gutxiagoren artean zaindu beharra), eskatu balia bideak (ondorioz lan produktiboari eskaintzen zaion denbora handitu) eta eskatu, halaber, diru-sarrerak.

Gauzak horrela, esan daiteke zaintzari eta lan erreproduktiboari dagokionez, euskal jendartea hamarkadetan ezagutu ez duen egoera nozitzen ari dela. Eta etorkizunean joerak indartzeko bidea hartuko du. Jaiotza tasen bilakaera eta hiriguneetako ugalkortasun tasa horren adibide.

Gauzak horrela, kezka iturri dira honako hauek:

- Asetasun ekonomikoari dagokionez gazteek eta bereziki emakume gazteen laneratzeak bizi dituen prekarietate egoerak formaziorako orientaziotik hasi eta kontratazioraino (sektore mailan eta kontratazio mailan).
- Sektorre ekonomiko tradizionalak bizi duten atzeraldia eta horrek familia askoren ekonomian duen eragina.
- Oro har, familietako kide helduek, bizi duten denbora disponibilitatearen eta baliabide ekonomikoen murriztea zaintza lanei aurre egiteko.
- Eraginkortasun ekonomiko handieneko sektoreen feminizazio maila apala edo nahiago bada, maskulinizazio maila altua, emakumeen jarduera ekonomikoari nagusitzeko joera duena familiaren baitako eginkizun banaketan (lan erreproduktiboa eta lan produktiboa).
- Honek guztiak duen patroia soziala adina, jatorria, sexua edo bizilekuaren arabera diferentziak handiagotzera daramana.
- Hego Euskal Herriak Ipar Euskal Herrian ezarritako ereduari ez jarraitzea zaintzako ardurak dituzten bizikidetzaren unitateen eskubideak bermatzeko.

7. FAMILIA- POLITIKAK EAE-N

ERNESTO SAINZ LANCHARES

48

SARRERA

Jakinekoa da familian eta haurtzaroan inbertitzeko politika publikoak Eusko Jaurlaritzaren bide-orrian daudela. Aurreko legegaldian pauso batzuk eman ziren, eta legealdi honetako hauteskunde-kanpainan Lehendakariak behin eta berriro esan zuen familien eta haurtzaroaren aldeko politiken aldeko apustu garbia egingo zuela.

Euskadi 2020 XI. Legegintzaldiko gobernu-programan —zeina 2016ko azarotik Eusko Jaurlaritza osatzen duten bi alderdi politikoek sinatzen baitute—, hau esaten da: *“Euskadik, Europako gizartearen gehiengoak bezala, politika sozial eta demografikoak garatzeko beharra du, gizartearen zahartzeari aurre egiteko eta jaiotza-tasa handitzeko. Hori dela eta, gizarte-politikek bi zutabe nagusi izan behar dituzte: batetik, adinekoen arreta, batez ere mendekotasun-egoeran daudenena, eta, bestetik, familiei eta haurrei laguntzeko politikak”.*

Gobernu-programak giza harremanetarako, gizarte-hezkuntzarako, hezkuntza afektiborako eta hezkuntza komunitariorako nukleo gisa ikusten du familia, eta familia-ardurak dituzten edo familia bat osatu nahi duten herritarrek beren bizi-proiektu hori ahalik eta kondizio onenetan egin dezaten lagunduko duten politiken aldeko apustua egin nahi du, eta horretarako dauden zailtasunei — ekonomikoei eta lan-mundukoei— aurre egiten lagundu.

Hori bai, familiaren kontzeptua zentzu zabalean hartzen du gobernuak. Izan ere, azken ikerketek baieztatu dutenez, seme-alaben garapen psikoemotionala ez da familia-egituraren araberakoa, baizik eta ematen diegun zaintzaren kalitatearen araberakoa. Hori dela eta, familia-mota desberdinak onartzea eta errespetatzea Euskadin egiten dugun familia-politikaren oinarritzko balioetako bat da; hala jasotzen da abenduaren 12ko 13/2008 Legearen, Familiei Laguntzekoaren, 3. artikuluan.

DIAGNOSTIKOA ETA HELBURUAK

Intentzio-adierazpen horrez gain, lau gertaera garrantzitsu hartu behar dira kontuan, diagnostikoan ageri direnak, eta familientzako eta haurrentzako inbertsio-estrategia berri bat martxan jartzea justifikatzen dutenak.

I. Lehen gertaera, eta oinarritzakoa, ez da Euskadiren arazoa bakarrik; Europa osoari eragiten dio: jaiotze-tasa eta ugalkortasun-tasa txikiak dira, eta zailtasunak ditugu nahi adina haur edukitzeko. 2015ean, mila biztanleko 8,6 haur jaio ziren Euskadin. EB-28ren batezbestekotik (10) behera dago gurea, eta Europako herrialde batzuetakoa baino askoz txikiagoa da, hala nola Irlanda (14,2), Frantzia eta Erresuma Batua (12) edo Suedia (11,8). Espainiako batezbestekoaren (9) parekoa da gurea, eta batezbesteko txikiena duten EBko herrialdeena baino zertxobait handiagoa: Grezia (8,5), Portugal (8,2) eta Italia (8). Euskadiko ugalkortasun-tasa 1,39 da, 1,388 zehatzago esateko; zenbaki hori oso urrun dago 1975eko batezbestekotik (2,78) eta *ikerketen arabera belaunaldi-ordezkatzea gertatzeko behar den gutxieneko zifratik* (2,1). Indize txikiena Bizkaikoa da, 1,31; Arabakoa 1,49 da, eta Gipuzkoakoa, berriz, 1,47.

Nahiz eta arazoa Europa osoarena den, eta Europa zaharrari eragiten dion, gure tasa inguruko herrialde guztiena baino txikiagoa da: EBko ugalkortasun-tasa (1,58) baino txikiagoa da, eta, berriz ere, Europa hegoaldeko herrialdeena baino pittin bat handiagoa: Italia (1,35), Grezia eta Espainia (1,33) edo Portugal (1,31). Baina oso urrun gaude beste herrialde batzuetako tasetatik, hala nola Frantzia (1,97), Irlanda (1,92) edo Suedia (1,85).

Hala ere, krisi-garaian ugalkortasuna handitu den estatuko autonomia-komunitate bakarra izan da gurea: 2008an emakumeko 1,3 ume izatetik, 2015ean 1,39 ume izatera pasatu ginen. Askok dago egiteko, ordea.

Herritarrek esaten dute Euskadiko familia askok nahi baino seme-alaba gutxiago izaten dituztela egoera ekonomikoak eraginda. Gazteen % 72k bi seme-alaba edo gehiago izan nahi litzuke, baina kopurua emakumeko 1,3 da.

2014an, Euskadiko familien % 5,6an (ia 50.000 etxe) gurasoek ez zuten nahi adina seme-alaba eduki, nahikoa baliabide ekonomiko ez zutelako, lan finkorik ez zutelako eta/edo haurrak zaintzeko arazoak zituztelako.

Datu horiek ikusita, helburu hauek ditu gobernuaren estrategiak:

- Seme-alabak dituzten familia guztiei diru-baliabide gutxienerako batzuk bermatzea. Aztertu behar dugu, foru-aldundiekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo sistema mistoa, zuzenerako laguntzak eta kengarri fiskalak konbinatzen dituen, sistema egokiena den edo ez, edo ba ote dagoen formula egokiagorik planaren helburuak betetzen laguntzeko. Proposatu izan da, halaber, DSBE aldaketak egitea, seme-alabak dituzten familiek baliabide gehiago izan dezaten.
- Familia-mota desberdinak onartzea eta babestea.

II. Bigarren gertaera, funtsezkoa hau ere, guraso izateko adina atzeratzea da. Gertaera hori lotua dago emantzipazioa atzeratzearekin, eta eragina du jaiotze-tasa txikian.

Emantzipazio-adina 30 urte inguru da batez beste Euskadin, eta amen batez besteko adina 33,4 urte zen 2015ean. Zifra hori EBko batezbestekoaren gainetik dago (30,5), baita amen adin handiena duten herrialdeen batezbestekoaren gainetik ere, hala nola Italia (31,7), Irlanda (31,6), Luxenburgo (31,5) eta Grezia (31,3).

Datu horiek ikusita, helburu hauek ditu gobernuaren estrategiak:

- Helduen bizitzarako trantsizioa erraztea, gazteen emantzipazioa eta bizitza-proiektu autonomoak bultzatzea, eta, hala, familia-unitate berriak sortzen laguntzea, hala nahi badute seme-alabak eduki ditzaten.
- Gazteek kalitatezko enplegua izan dezaten sustatzea.
- Gazteei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea.

III. Hirugarren gertaera nagusia haurren pobrezia-rekin lotua dago. Haurren pobrezia berragertu da, eta gero eta garrantzi handiagoa du herentziak gizar-teko mugikortasun-prozesuetan eta ezberdintasunen errepikapenean. Ez daukagu zalantzarik: pobrezia heredatu egiten da; zaila da eskala sozialean gora egitea, edo beheko mailan dagoena klase ertainera igotzea. Eta ez da Euskadin

bakarrik gertatzen. Horrek ere eragina du lehen aipatu dugun gertaeran, eta landu egin beharko dugu, jaiotza-tasak handitzea nahi badugu.

Egoera zein den ikusita, hauek dira gobernuaren helburuak:

- Haur guztiek, beren lehen mila egunetan (0-3 urte) erraz eskuratzea arreta-zerbitzua, kalitatezkoa eta modu onekoa.
- Hezkuntza-politikak berrantolatzea, eskola-sistema inklusibo eta hezkide bat sustatzeko, gai izango dena berdintasuna bermatzeko eta desabantaila sozial eta ekonomikoak dituzten ikasleen zailtasunak konpentsatzeko.
- Laguntzea haur eta gazte guztiek izan ditzaten aukera berdinak gizarte- eta hezkuntza-arloko, kirol-arloko, kultura-arloko eta aisialdiko baliabide eta ekipamenduak izateko.
- Familia- eta haur-politiken gobernu hobetzea eta gizarte- eta hezkuntza-arloko benetako espazio bat sortzea.

52

IV. Laugarren gertaera garrantzitsua lotua dago etxeko lanak banatzearekin. Seme-alabak zaintzeko ardura ez dute maila berean hartzen gizezkoek eta emakumezkoek. Jaiotza-tasa txikiak zuzeneko lotura dauka generoen arteko desberdintasun horiekin (batez ere seme-alabak zaintzeko ardurari eta denbora sozialaren antolaketari dagokienez). Etxeko lana oso desberdin banatzen da etxetik kanpo lan egiten duten Euskadiko gizezkoen eta emakumezkoen artean. 2015ean, etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeek egunean 4,5 ordu ematen zituzten 15 urtetik beherako seme-alabak zaintzen; gizezkoek, berriz, 2,9 ordu.

Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen % 14,9 ez daude konforme, inondik inora, bikotekideek etxeko lanetan hartzen duten ardurarekin. Aitzitik, gizezkoen % 70,4 oso gustura daude bikotekidearen inplikazioarekin.

Datu horiek ikusita, helburu hauek ditu gobernuaren estrategiak:

- Gurasoei aukera ematea seme-alabei behar duten denbora eskaintzeko, familiaren beharrei egokiago erantzuteko denbora soziala antolatuz eta gizarte-antolaketa erantzunkidea sustatuz.
- Gurasotasun positiboko, hurren osasuneko (arreta goiztiarra) eta familia-bitartekaritzako programak sustatzea, gurasoen hezkuntza-gaitasuna hobetzeko, ohitura osasungarriak sustatzeko eta familietan gertatzen diren gatazkak egoki bideratzen laguntzeko.
- Haurreskolak Partzuergo Publikoak gaur egun ematen dituen zerbitzuak zabaltzea eta sendotzea.

AZKEN HAUSNARKETA

Ezin da Familiaren eta Haurtzaroaren aldeko Itunik egin Gobernuko sail hauen parte-hartzerik gabe: Hezkuntza Saila (estrategiaren oinarritzko bi zutabe dira arreta goiztiarra —haurrentzako zerbitzuak hedatuz eta sendotuz—, eta eskola inklusiboaren eraikuntza), Osasun Saila (arreta goiztiarra sustatu behar du), Etxebizitza Saila (gazteei etxebizitza bat eskuratzen lagundu behar die, lehenago emantzipa daitezen), Gazteria (neurriak hartu behar ditu gazteak lehenago emantzipatzeko), Lan Saila (ezin ditugu ahaztu gure gazteentzako lan-politikak), Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak, Emakunde (bateragarritasun erantzunkideko proposamenak egin behar ditu gure enpresetan eta gure etxeetan, eta, agian, gure industrialdeetan haurtzaindegiak jartzea planteatu, beste herrialde batzuetan egiten duten moduan), Ogasuna, bai eta hiru foru-aldundiak, udalak eta Familiaren Euskal Kontseilua ere.

8.

FAMILIAREN SOZIOLOGIA ETA FAMILIA-POLITIKAK

GOGOETA SOZIALETIK GOGOETA POLITIKORA

JESUS HERNANDEZ ARISTU

54

1. SARRERA

Zenbait ikuspegitatik ekin dakioke familiaren gaiari: adibidez, kontsumo-unitate gisara azter daiteke, hau da, faktore ekonomiko gisara. Loturak ikertzen badira, harreman-sistema gisara aztertuko dugu; familiako kideen arteko erantzukizunaren ikuspegitik begiratz gero, berriz, elkartasun-eremu gisara; ugalketa- eta zaintza-leku modura ikusten badugu, hezkuntza-unitate gisara; ikuspegi juridikotik begirata, berriz, batez ere kontratu-zuzenbide modura (bikotearena, seme-alabena, herentziena...); fenomeno kulturaltzat hartzen badugu, familiaren osaerari eta haren kide izateko edo ez izateko moduari erreparatuko diegu batik bat, bai eta ezkontza-erritualei, seme-alabak izateari eta haien kopuruari ere. Ikuspegi etiko eta moraletik begirata, berriz, honetaz arituko ginateke: harremanen kalitateaz, belaunaldi batzuek beste batzuekiko dituzten obligazioen betetzeaz edo ez betetzeaz, eta sortzearen, ernaldiaren eta elkarrekiko tratuaeren nolakotasunaz eta mugez.

Badago horretaz guztiaz zenbait ikerketa, datu eta azterketa sozial, psikologiko, antropologiko, soziologiko, etiko, filosofiko, ekonomiko, historiko... Oso interesgarria izan daiteke horiek aztertzea, baina gainera bakarrik begiratuko ditugu, bestela jardunaldi honen eta, noski, nire ezagutzaren mugak gaintu egingo baikenituzke.

Horregatik, erakunde sozial horrek mundu osoan izan dituen eraldaketei dagozkien alderdi batzuk aztertuko ditut, batez ere azkenaldi honetan —mende-laurden bat, edo— izandako eraldaketei dagozkienak. Honetarako ere lagungarri izango zaigu testuinguru hori: eraldaketa horiek familiaren politika sozialetan (edo, hobeto, familien politikan) zer ondorio eragin dituzten aztertzeko.

2. FAMILIA KOMUNITARIOTIK FAMILIA PRIBATU-PUBLIKO ETA INDIBIDUALIZATURA

Familia, gizartearen oinarri edo zelula ez ezik, haren isla ere bada —eta horixe da, batez ere— : familia aztertzen badugu, ispilu batean bezala ikusiko dugu zer ari den gertatzen gizartean. Honenbestez, iruditzen zait oso gai konplexua dela familiarena, gizartea ere konplexua da eta. Alderantziz ere azter daiteke gaia: gizarteari begiratuz gero, seguru han gertatzen denak izango duela ondorioz familian, lehenago edo geroago.

Adibide bat jartzearen, 1960ko hamarkadako jaiotza-kontrolaren ikerketak berehala izan zuen eragina seme-alaben kopuruan, eta txikiagotu egin zen familien tamaina.

Kapitalismoa bizitza sozialera eta gizarte-antolakuntzara hedatzeak ere ekarri zion zenbait ondorio familiari, eta, etxeko industria zela medio, ordura arte “ondasun- eta autohornikuntza-komunitate” zen hura zenbait rol desberdinetako sistema bihurtu zen. Hots, industrializazioaren aurretik, familiako kide bakoitzak ahal zuen ekarpena egiten zion familiaren mantenuari (familiaren tailertxoan, baserrian...), edozein zuela ere adina eta generoa. Industrializazioak, berriz, berekin ekarri zion familiari “sexuaren araberako lan-banaketa” deritzona.

Industrializazioaren hasieran, meategietan edo lur-jabe handien soroetan egiten zuten lan gizonak, emakumeak eta umeeak, gremioen tradizioari jarraikiz; geroago, bigarren urrats bat egin eta emakumeak eta haurrak etxean geratzea erabaki zen, eremu pribatuan, alegia. Lorpen sozialtzat jo zen aldaketa hura.

Gizonak familiaren mantenua ziurtatu behar zuen; emakumeak, berriz, senarra eta seme-alabak zaindu. Soldata ez zen indibiduala, familiarra baizik, familia osoaren mantenerako alegia. Baina gizonari zegokion horretaz arduratzea, etxetik kanpo, fabriketan, meategian, administrazioan, nekazaritzan... Eskulana behar zuen industriak, geroz eta prestatuagoa gainera. Hori zela eta, estatuek familien bizitzan esku hartzea erabaki zuten, eta, industriaren premia teknikoak eta profesionalak asetzearen, trebatzeko aukera eskaintzea semeei, zeinek, bide batez, familiaren mantenerako dirua irabaz zezaketen.

Erraza zen orduko familiaren ibilbidea: lehenbiziko urteak, etxean, amaren zaintzapean; ondoren, trebakuntza (lanbide-heziketa edo bestelako ikasketak), Estatuaren kontura, eta, ustekabe handirik gabe, zuzenean lanera. Horren truke, konpromiso hau bereganatu zuen industriak: lanpostuak eskainiko zizkiela belaunaldi berriei. "Belaunaldien arteko kontratua" deritzon hori helduarora inongo hausturarik gabe iristeko sistema lineala zen. Hurrengo urratsa (naturala/kulturala), berriz, ezkontzea eta familia bat osatzea izaten zen gizarte askotan, batez ere industrializatuetan.

Handik aurrera, Estatuak bakarrik ase zezakeen seme-alabak hezteko eta zaintzeko premia, hau da, lehen etxe barruan bakarrik egiten zena kanpoan egiten zen jada; ordura arte pribatua zen familia-barrutia publiko bihurtu zen, Estatuaren esku-hartzea zela medio.

Kapitalismo industrialak familiaren zaintzapetik atera zuen semeen heziketa eta, pixkanaka, baita alabena ere. Izan ere, emakumeak ere zenbait lan hasi ziren egiten etxetik kanpo, batez ere administrazioan eta irakaskuntzan. Horretarako, berariazko trebakuntza behar zuten emakumeek.

57

Gizartearen egiturak, berriz, nahiko egonkorak ziren: ezkontza monogamikoa (eta bizitza osorakoa); soldata familiarra; etxe berean belaunaldi desberdinetako jendea bizitzen, elkarrekiko nolabaiteko elkartasun-maila zutela; antolakuntza hierarkikoa, gizona lehen mailan zela (patriarkatua). Oro har, unibertsalak ziren ezaugarri horiek, baina azterketa zorrotzagoek gizarte batzuetatik beste batzuetara aldeak bazirela erakutsi dute (gizarte matriarkalik ere bazegoen, baina salbuespenetik gehiago zuten arautik baino).

Denborak aurrera egin eta gizarteak modernizatu ahala, hustuz joan ziren, pixkanaka, familiaren funtzioak eta egitura: lehen, ugalketa, seme-alaben zaintza eta adinekoen ongizatearen bermea ziren familiaren eginkizunak. Estatuak, baina, bere gain hartu zituen, pixkanaka, funtzio horiek, eta "Ongizate-estatu" deritzona eratu zen zenbait herrialdetan, batez ere European, Bigarren Mundu Gerraren ostean. Modernizazio-prozesu horrek izan zuen eraginik familian, oro har eta mundu osoan, kapitalismoa ia gizarte guztietan ezarri eta garatu baitzen. Kapitalismoaren laguntza tarteko zela, familia-egitura komunitarioak desagertu eta familia txikiagoak sortu ziren, kide gutxiagoak, indibidualizatuagoak eta malguagoak, mugarik gabeko

kapitalismo globalaren premietara egokituak. Bilakaera horrek ekarri zituen aldaketek familiaren egiturei, osarari eta funtzioei eragin zien. Familia tradizionaletik egungo familia postmodernorako "trantsizioa" deitu zion bilakaera orokor eta unibertsal horri jaiotzez Gaztela-Mantxakoa den AEBko Berkeleyko Unibertsitateko M. Castells soziologoak (1997).

3. IRAULTZA ISILETIK FAMILIAREN KAOSERA.

Era de la información lanaren bigarren liburukian (Castells, 1997), maila orokorrean mintzo zen familiaz Manuel Castells, sasoi hartan Berkeleyko Unibertsitateko irakasle, eta hau iragarri zuen: familia tradizional-patriarkaetik beste familia-mota batzuetarako trantsizio-moduko bat ari zela gertatzen, lau faktore hauek eraginda:

1. Ekonomiaren eta lan-merkatuaren aldaketa eta, horrek eraginda, emakumeak etxetik kanpo lanean hastea. Emaitza: emakume independenteak, beren buruaren eta etorkizunaren jabe direnak eta, etxetik eta familiatik kanpo, lanpostuengatik lehiatzen direnak. Aldarrikapen nagusia: berdintasuna.

2. Biologiaren, farmakologiaren eta medikuntzaren eraldaketa teknologikoa eta, horrek eraginda, haurduntzaren eta giza ugalketaren kontrola. Emakumeek ez dute gizonen beharrik haurdun geratzeko, ezta seme-alabak hazteko ere. Lehen, elkarri lotuta zeuden sexualitatea, ugalketa eta ezkontza; orain, aldiz, bereizita.

3. Mugimendu feministak, eta familiaren egitura patriarkaletan izan duten eragina: eskubide indibidualak aldarrikatzen dituzte emakumeek, berdintasunezko tratua familian eta familiatik kanpo, beren gorputzaren jabe izan nahi dute eta, horrenbestez, seme-alabarik izan nahi duten erabaki eta, izatekotan, noiz, nola eta norekin.

4. Ideien hedatze azkarra, elkarrekin etengabeko konexioan eta harremanetan dihardugun gure mundu globalizatu honetan, komunikabideen eta sare sozialen bitartez (Internet, Facebook, webguneak eta abar). Isolamendu kulturala gainditzea ekarri du hedatze horrek, bizitzeko eta mundua ikusteko beste era batzuen berri izatea, estatuaren edo presio-taldearen kontrolik gabe. Familia bat sortzeko edo ez sortzeko aukera dago, beraz, edo bizitzan zehar familia bat baino gehiago izatekoa, eta ezkontzeko honelako edo halako errituak eta ohiturak erabiltzekoa.

4. FAMILIA-MOTA UGARI GIZARTE INDIVIDUALIZATU HONETAN

Aipatutako irakasle espainiarrak dioenez, aukera ugari mundua datorkigu familia-bizitzari (edo familiarik gabekoari) dagokionez. "Familia ez da desagertzen ari, baizik eta izugarri dibertsifikatzen, eta aldatzen ari da haren barruko boteresistema". 2008an genioenarekin bat eginez, gizarte-aldaketen ikuspegitik egiten den familiari buruzko edozein ikerketak berresten du familia-mota ugari daudela, ez dela amaitu familia-mota berrien sorrera, aro industrialeko familia-sailkapen klasikoarekin alderatuta: familia nuklearra, familia zabala, guraso bakarreko familiak (lehen, "umezurtz" deitzen zitzaien aitarik edo amarik ez zutenei), familia mistoak, bi naziotako kideak dituzten familiak, guraso homosexualak dituzten familiak, ama lesbianak dituztenak; familia berrosatuak, non lehenagoko harremanetatik eratutako bizpahiru familiatako adingabeak bizi diren; jatorri kultural desberdinetako atzerriko familiak; nazionalitate eta kultura desberdinetako kideak dituzten familia autoktonoak; guraso bakarreko familiak, non amak bakarrik zaintzen dituen seme-alabak, edo aitak (kasu gutxiago); seme-alaba naturalak edo adoptatuak dituzten familiak; ama biologikoak, ordezeko amak, ama sozialak dituzten familiak; lotura juridikoa duten bikoteek osatutako familiak; izatezko bikoteak... Horrez gain, badaude epe jakin bateko familiak ere (asteburuetan elkartzen direnak, adibidez), edo kideak leku desberdinetan (edo herrialde desberdinetan, baita kontinente desberdinetan ere) bizi diren familiak.

59

Hankaz gora jarri du aniztasun horrek hainbat urte eta hamarkadatarako familia egonkorren eredu (nuklearra). Europako gizarteetan eredu hori da nagusi oraindik ere, baina beste familia-mota batzuk ere ate joka datoz. Gogoan izan gizarte batzuetan ezkondu gabeko gurasoenak direla seme-alaben erdiak baino gehiago, eta handitzen ari dela portzentaje hori; bestalde, geroz eta ugariagoak dira izatezko bikoteak, seme-alabak dituzten bikoterik gabeko emakumeak, ugalkortasun-arazoak direla-eta seme-alabak adoptatzen dituzten familiak, seme-alabarik izan nahi ez duten emakumeak... Bien bitartean, geroz eta jende gutxiago ezkontzen da, eta geroz eta gehiago dibortziazten.

Bestalde, ia ezinezkoa da ikuspegi soziologiko batetik definitzea zer den "familia"; horregatik, gutako askok ez dugu "familia" hitza erabiltzen, baizik eta "familiar" edo "familia-motak", bestela zaila bailitzateke aniztasun hori guztia adieraztea, ezin baita adosgunerik aurkitu. Batzuen iritziz, hau da familiarren definizioa: gizaki-komunitate

bat, non pertsona batek (heldua) erantzukizuna duen beste batekiko (adingabea). Baina irizpide hori familia-aniztasunari aplikatuz gero, zailtasun gaindiezinak aurkituko ditugu. Adibide bat jartzearen, 30 urteko seme bat eta haren ama alarguna ere familiatzat jo behar dira? Eta etxe berean bizi diren bi ahizpa? Familia-mota ugari daude gaur egun, eta, familiaz ari garela, zehatz adierazi behar da zertaz ari garen. Orokorra, gaur egungoa, globala dugu familia-moten aniztasunaren fenomeno hori, eta ez da oraindik amaitu. Hori dela eta, berriro aztertu eta definitu beharrean gaude "familia" deritzogun horren inguruko zenbait kontzeptu, baita gizartearen bilakaera eta historian zehar esleitu zaizkion funtzioak ere.

Gerta daiteke, baina, batzuek tamalgarri iriztea azken hamarkada hauetan gure ingurune hurbilean (Europa, Mendebaldea) izandako aldaketa horri, iraganeko garai oro hobea izan zela pentsatzea, baita antzinako familia-eredua nostalgiaz gogoratzea ere... Jarrera horiek, ordea, ez digute batere lagunduko XXI. mendeko familiak justiziaz, berdintasunez eta elkartasunez eratzten, ezta familia bateko kide sentitzen diren gizaki-komunitateetako loturak orientatzen edo sendotzen ere. Hona zer zioen mende honen hasieran (2002) Zygmund Baumanek, 2010eko Gizarte Zientzien Asturiasko Printzea Sariaren irabazleak: "Irauteko etorriko da indibidualizazioa, hau da, tradizioak agintzen eta bermatzen eta rol sozialek finkatzen zituzten gizarte-arauen araberako lehengo gizarte-portaerekiko haustura, eta hori onartu egin behar dugu, hori baitu abiapuntu haustura horrek gure bizimoduan izan dezakeen eraginari aurre egiteko arrazoibide orok". Aurreko gizarteak, "gizarte industrialak" zeritzonak, ordena eta sailkapena zituen ezaugarri, eta gauza bakoitzak zeukan zegokion lekua; egun, aldiz, kaosa da ezaugarria.

Zaila da kontua gaur egun. Imajinatu, adibidez, honako hau:

paseoan zabilta, parke batean, eta haur-kotxe batean haurtxo bat daraman emakume batekin egiten duzu topo. Ezaguna baldin baduzu emakumea eta aspaldi ikusi ez baduzu, beharbada hau galdetzera ausartuko zara:

– "Noiz ezkondu zinen?"–. Era askotakoak izan daitezke erantzunak:

– "Duela urtebete"–, edo, agian:

– "Ez nago ezkondata"–.

Konfiantzaren mugak gaindituz, hau galdetu diozu: “Baina bikotekiderik ba al duzu?”.

–“Bueno, izan nuen bolada batez, baina orain, ez”–, izan daiteke erantzuna.

Agian, beste muga bat gainditu eta zera galdetu diozu:

–“Galanta aurpegia! Umea zuri utzi eta desagertu egin da, ala?”–.

–“Ez, ez”–, erantzun dizu, bizkor –“Urtebete baino gehiago da ez garela elkarrekin bizi; nik, ordea, ama izan nahi nuen, eta in vitro ernalketa egiten duten klinika batera joan nintzen”–.

Solasean puska batean jardun ondoren, beharbada hau galdetzera ausartu zara:

–“Katolikoa al zara?”–.

Zer erantzungo ote dizu?

Antzinako pentsaeratik begiratuta, “normalak” eman dezakete galderek; erantzunak, berriz, oso desberdinak izan daitezke. Garai batean, ama ezkongabea, alarguna edo emakume ezkondua izango zen, seguruenik, alegiazko egoera horretako protagonista.

Gaur egun, aldiz, askoz zabalagoa da galdera horiek jaso dezaketen erantzunen aukera. Eta kasu bakar batez ari gara; gure inguruko familia-mota guztiak aztertuko bagenu, balizko erantzunen kopurua askoz handiagoa izango litzateke.

Egungo familiaren irudia Marrakexeko edo beste edozein hiritako aire zabaleko azoka baten antzekoa da: era guztietako objektuak salgai nonahi; apalategiak, eskaintza-plataformak, jatorri eta tankera askotako jendea hara eta hona, giza erlauntza baten gisara; ahots-murmurioak, berriz, halako ordena kaotiko baten itxura sortzen du, edo, nahiago baduzue, kaos ordenatu batena, non askotariko istorioak gertatzen eta kontatzen diren, non zer zaharrak eta berriak elkarrekin nahasten diren, harri-mosaiko bat, koloretako lepoko bat edo irudi-collage bat balira bezala.

Horrelako azoka batek ondo irudika ditzake, oro har, egungo bizitza sozialaren konplexutasuna eta kaosa eta, hedaturaz, familiarena. Elisabeth Beck-Gernsheim soziologo alemanaren liburu baten izenburuak ere kaos hori du jatorri: El normal caos del amor.

Baumanek dioskunez (1996, 91. orrialdea), jada ez dute balio luzaroan gizarte modernoaren arketipo izan diren ordenak, sailkapenak, bereizketak (edo geometriak, taxonomiak, estatistikak...). Mundua geometrikoa balitz nolakoa izango litzatekeen erakusten digu geometriak, baina kaotikoa da natura. Gizakiok ordena behar dugu; naturak, berriz, kaosa eskaintzen digu: "Ordena eta kaosa dira modernitatearen (polo) bikiak", Bauman (1996: S.77)

Laburbilduz, familia-kontzeptu ugari, askotarikoak, elkarren aurkakoak daude gaur egun, leku eta garai bera partekatzen, eta gatazka-iturri izan daiteke hori guztia, bai familiaren barruan, bai familien, ahaideen, komunitateen eta kolektiboen artean. Baina aniztasunaren eta pluraltasunaren kaos horretan aukera bat ere sumatzen da; izan ere, familia, edozein dela ere haren mota eta osaera, topagune ere bihur daiteke: tolerantziaren, aniztasunaren kudeaketaren, errespetuaren, barne-elkarrizketaren eta, odol-harremanetatik landa, gizarte-harremanen topagune, aitasun-eta amatasun-era askotako seme-alabei harreman-aukera zabala eskain diezaien, haien aurrekoek izan zuten bezain zabala edo zabalagoa. Sasoi hartan aitona-amonak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak eta anai-arreba ziren haiek, gaur egun aitaren edo amaren anai-arrebak dira, norberaren aitona-amonen seme erdi-osaba edo erdi-izebak, anaiordeak edo arrebaordeak, zenbait senar-emazteren suhi-errainak..., hots, aukera berri bat dira, familia-mota berrien ugaritasun horretan hezurmamitua. Gizarteari eta familiei bete-betean eragiten dien horrelako fenomeno sozial bat tartean dela, ba ote du zentzurik familiaren aldeko politika sozialez hitz egiteak? Norantz bideratu behar dira familia-politikak?

5. FAMILIAREN BALIO SOZIALA GIZARTE- ETA LAGUNTZA-POLITIKEK ERAKUSTEN DUTE

Espania da familia gehien estimatzen eta balioesten duen herrialdea, baina, aldi berean, gutxien laguntzen diona, hau da, familia-politika okerrenak dituena. Kontrae-sankorra da, izan ere, Espainiaren eta bere autonomia-erkidegoen jokabidea: batetik, familia gorensten dute, ondasun sozial gisara ez ezik berezko balio modura ere bai.

Ikuspegi hori dela eta, Ongizate Estatuari dagozkion zenbait lan eta funtzio familiak hartzen ditu bere gain, Estatuaren laguntzarik gabe. Esate baterako, aitona-amona askok beren seme-alabak mantentzen eta bilobak zaintzen dituzte. Biziki balioesten da familia, baina gutxi laguntzen zaio. Espainiak eta bere autonomia-erkidegoek ere salbuespen-politikak dituzte familiekiko. Izan ere, zenbait izapide burokratiko egin behar izaten dituzte laguntzak jasotzeko premia dutela frogatzeko. Salbuespenezko egoerak jasaten ari den jendea dute helburu familia-politikek: premia sozialak dituzten sendiak; familia ugariak; gaixotasunak, urritasun fisikoak eta abar direla-eta premia bereziak dituztenak... Beraz, ezin dute laguntzarik jaso kategoriatan batean sartzen ez diren familiek, edo salbuespenezko egoeraren ezaugarri bat edo batzuk frogatu ezin dituztenek. Gizarte-politikak irizpide politikorik gabe egiten dira, eztabaida parlamentariorik gabe, familia-erakundeei galdetu gabe, ez eskola-eremukoei, ez familia-erakunde zibilei. Gehienez ere, "ateraldiak" deritzedan politikak egiten dira; adibidez, Rodríguez Zapatero presidentearen 2.000 euroko laguntza ("babyxkeka"), sarritan agindu baina inoiz martxan jarri ez zen Familia Ministerioa... Herritarrek apenas egin izan dieten kasurik ateraldi horiei. Laburbilduz, kasurik ez diote egiten familiari ez Espainiak ez Espainiako autonomia-erkidegoek, eta zeharkako politikak bakarrik baliatzen dituzte. Laguntzak jasotzeko eskubidea, berriz, gurasoek izaten dute, inork izatekotan. Gainera, arazoak gainditzeko bakarrik ematen dira laguntzak. Baina ikusirik gaur egungo familia-ereduen aniztasuna, kaosa eta erantzukizunak (familia barrukoak zein kanpokoak), ez du zentzurik laguntzak gurasoei emateak, eta zuzenean seme-alabei eman behar litzaizkieke. Horregatik, uste dugu aldatu egin behar dela familientzako laguntzaren kontzeptua, eta labur azalduko dugu horri buruz dugun iritzia. Seme-alaben eta gizartearen biziraupena ziurtatzen duten politika integralak behar ditugu, haien premia oinarritzkoenak asetzen dituzten politikak (elikagaiak, etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta trebakuntza, ingurumen-premiak eta ekologikoak).

63

6. ARDATZA, ADINGABEEN ONGIZATEA BERMATZEA

Familiaz eta familia-politikez ari garelarik, berariazko erreferentzia ditugu familiaren definizio jakin bat eta familia-politiken helburu jakin bat. Hona zer den familia, gure iritziz: pertsona heldu baten (gizona zein emakumea) eta adingabe baten arteko bizikidetzeta, edo hark honekiko duen erantzukizuna, aintzat hartu gabe odolkitasuna, jatorria edo beste zeinahi ezaugarri. Horregatik, oso garrantzizkoa deritzogu familia-politika berrien xede adingabeak izateari, 18 urtez behekoak alegia, eta ez

hainbeste haien guraso biologikoak edo sozialak. Seme-alabek, adingabeek, izan behar dute eskubide-subjektu, giza eskubideak (oro har, eta adingabeenak batik bat) egituratzen dituzten bost elementu edo zutabe hauen arabera betiere:

- Elikadura osasuntsua eta nahikoa
- Eskolaratzea eta trebakuntza
- Etxebizitza
- Osasuna
- Eta ingurumen osasuntsua, ekologiaren aldetik

64

Hemezortzi urtez beheko neska-mutikoen eskubideak dira horiek, edozein dela ere haien aita-amen edo guraso sozialen estatus ekonomikoa. Ohartzen gara, dena den, gurasoek kudeatu behar dituztela adingabeentzako laguntzak, neska-mutikoen adinaren arabera betiere, eta kontrol administratiboak ezarri behar zaizkiela.

Hemezortzi urtetik gorakoek, berriz, familiarekiko independente izateko laguntzak behar dituzte (bekak, enplegua sortzeko laguntzak, etxebizitza, soldata soziala, etab.). Gu bezala Europar Batasuneko kide diren gure ingurune sozial eta politikoko zenbait herrialdetan jasotzen dituzte laguntza horiek. Eskandalagarria da, bestalde, beren kargura seme-alabak dituzten aita-ama pobreen portzentajea. Espainiako haurrak dira pobrezia zama gehien pairatzen dutenak: neska-mutikoen % 25i eragiten die. Pobre behin, pobre beti. Esaera ez ezik, egitate bat ere bada: errepikatu egiten dira pobrezia-egoerak eta, gehienetan, jende berari eragiten diote, behin baino gehiagotan gainera.

Neska-mutikoenak dira eskubideak, ez haien gurasoenak edo adineko ardura-dunenak.

Espainian, lau umetatik bat dago pobrezia pairatzeko edo gizartetik bazterrera geratzeko arriskuan. EB osoko bigarren portzentajerik handiena da.

Haurren pobrezia aurre egiteko, politika integralak diseinatu behar lirateke,

neska-mutikoen eskubideak egiazki eta eraginkorki bermatzea xede duten politikak. Horregatik, ikuspegi juridiko batetik begiratuta, ez da nahikoa neurri horiek araudi batean jasotzea: lege batek eskubidetzat ezarri behar ditu, agintean dagoen gobernuaren borondatearen arabera izan ez daitezten. Orokorra eta unibertsala izan behar du legeak, neska eta mutiko guztientzako baliagarria, alegia, eta bermatu egin behar du haien elikadura eta gainerako eskubideak, NBERen lege nagusietan eta 1989ko Haurren Eskubideen Hitzarmenean eta Espainiako estatuak sinatutako edo onartutako gainerako nazioarteko dokumentu eta itunetan jasotakoak.

Espainiako alderdi politikoak ardura handiz jardungo lirateke, edozein dutelarik ere ideologia, haurren pobrezia-aren aurkako itun bat sinatu eta neska-mutikoen zenbait eskubide zehaztuko balituzte, haurren aldeko benetako gizarte-politikak alegia, laguntza-politika hutsalak eman eta adierazpen hanpatsuak egin beharrean.

Horregatik, aldatu egin behar da 8/2015 Lege Organikoa, Haurrak eta Nerabeak Babestekoa, eta haur bakoitzarentzat diru-kopuru bat esleitu. Haurren pobreziaz ari garela, hau da larriena: ez dago behar adina diru haien gastuei aurre egiteko (elikadura, berokuntza, eskolako materiala, jostailuak...). Horri aurre egiteko modurik onena, beraz, adingabe bakoitzari diru-kopuru bat esleitzea da. Unibertsala eta baldintzarik gabea izan behar du esleipenak.

65

Haur askok pairatzen duten gabezia- eta eskasia-egoerak gaintzeko ez ezik, beste honetarako ere eraginkorra da politika hori: jaiotza-tasa sustatzeko, berezko helburua hori ez bada ere. Europako iparraldeko zenbait herrialdeetan eta Frantzian ikusi denez, politika horiek sustatu egiten dute jaiotza-tasa.

Horrelako programak dituzten gure inguruko herrialdeetan, laguntza-politiken unibertsaltasuna eta baldintzarik eza izan dira beti eztabaidagai nagusiak.

Lehen begiratu batean, bidezkoagoa eta eraginkorragoa dirudi premia duten familiei bakarrik ematea laguntzak, urriak izaki baliabideak, eta ez nahikoa bitarteko badutenei.

Gure ustez, baina, haurrak ez dira beren patuaren erantzule eta, Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera, denek dute eskubidea elikadura eta garapen egokiak izateko. Haurrak dira eskubide horien titularrak, ez haien gurasoak. Beraz, ez

dira bihurtu behar gurasoen egoeraren arabera eskubide. Hurrek izan behar dute eskubide horien titular eta, horrenbestez, laguntzaren hartzaile.

Familia-politiken helburuak, berriz, ez du zertan izan, nahitaez, seme-alaben kopurua handitzea, baizik eta seme-alabak izan nahi dituzten guztiek horretarako aukera izatea.

Familia-politiken xede nagusiak ez du izan behar seme-alabak izan nahi dituen emakume, bikote, gizabanako edo talde orori horretan laguntzea, haien ibilbide profesionalari eta estatus ekonomikoari kalterik eragin gabe (adibidez, lana eta familia uztartzeko planen bidez), baizik eta era guztietako zama psikologiko, ekonomiko eta sozialak kentzea familiei. Ezin dugu eduki familia nuklear bat, edo gaur egun geroz eta ugariagoak diren beste era batekoak (beren kargura umeak dituzten amak, bananduak, homosexualak, bikote mistoak, geografikoki "banandutako" familiak...), zeinarentzako baldintza egokiak sortu ditugun (adibidez, etxebizitza, trebakuntza, askatasuna...) eta, aldi berean, Ongizate Estaturik ez zegoen garaiko prestazio berak eskatu familia horri, hau da, zergarik apenas zegoen, haurren hilkortasun-tasa oso handia zen, ondasun materialen eta zerbitzuen trukea gizartearen eta, beraz, familiaren antolakuntzaren ardatza zen garaikoak, jarduera soziala belaunaldien arteko itunak eta sexuaren arabera lanaren banaketak gidatzen zutenekoak. Hots, ezin dugu luzaroan jarraitu eskizofrenia mental, kultural eta ekonomiko horiei eusten, ezta gizarte-atzeratasunari ere, gizartea bera bere errete eta hutsegiteen biktima bihurtu gabe.

8. FAMILIETAKO HARREMANAK ETA FUNTZIOEN KUDEAKETA SENDOTU ETA BABESTEKO PREMIA

Adingabe guztien ongizatea bermatzeko, diru-laguntzak emateaz gain, kontuan izan behar da gizarte-bizitzaren konplexutasuna, zeinak, lehenago ere azaldu dugunez, familian ere baduen isla. Horregatik, erantzukizun handiagoz jardun behar dute administrazio publikoek eta bikoteei, seme-alabei eta familiei bitartekaritza, aholkularitza eta laguntza eskaintzen dieten erakundeek. Hona zer behar den: familientzako topaguneak, guraso-elkarteak, seme-alabei epe labur baterako aterpea emateko eta laguntzeko programak familian gaixoaldi, krisi edo une zailen bat izaten denerako.

Aholkularitza- eta terapia-zentro ugari behar dira, sare zabal bat, bai eta guraso-

eskolak ere. Familia-motak, -estiloak eta -erak ugaritzeak berekin dakar erabaki pertsonal garrantzitsuak hartu beharra, gehienak bakarka edo, gehienez ere, bikoteka hartu beharrekoak: zenbat seme-alaba izan, noiz izan, bikotekide batekin edo gabe izan, ezkontuta edo ezkontu gabe... Horrekin batera, bikoteari dagozkion zenbait erabaki ere hartu behar izaten dira (iraupena, bikotearen hausturaren ondorioak, bikotekide berri bat bilatzea, haurren zaintza, herentziak eta abar). Gure gizarte konplexu honetan, esfortzu eta ahalegin hain handia eskatzen du ama edo aita izateak (haurren hezkuntza, zaintza...) ezen guraso askori zaila egiten baitzaio aitaren edo amaren rola betetzea.

Zalantzarik gabe, askatasun handiagoa du, oro har, gure gizarteak, baina horrek erantzukizunak gureganatzera garamatza nahitaez, gure ekintzen ondorioak geure gain hartzera. Hori dela eta, askok bi aldiz pentsatzen dituzte gauzak, eta erabakia hartu ondoren atzera egiten dute batzuek, edo norabidez aldatzen saiatzen dira. Batzuetan, arduragabekieriaz jotzen dira erabaki horiek, ekintza egoistatzat edo hedonistatzat... Alabaina, uste dugu kanpoko laguntza psikosoziala behar dela gizarte-prozesuen konplexutasuna, baldintza sozioekonomikoen eragina eta herritarron berdintasun-nahia kudeatzeko. Laguntza behar da gauzak argitzeko eta, hala badagokio, banantze-prozesuek eragiten duten sufrimendua leuntzeko, edo, elkarrekin jarraitzeko borondatea nagusitzen bada, harremanak berrosatzen laguntzeko, edo kostu psikologiko ahalik eta txikiena eragiten duen erabakia hartzeko, banantzea kalterik txikiena edo denentzat (gurasoak eta seme-alabak) onuragarria den kasuetan.

67

Gizarte- eta elkartasun-sareek, berriz, ez lukete izan behar gaixotasun-kasuetarako edo premia ekonomiko larrietarako: bizi-krisietarako, aldaketa-prozesuetarako, garapen pertsonaleko aukera berrietarako ere lagungarri behar lukete izan.

Azkenik, pentsaera aldatzea eskatzen digu horrek guztiak. Bizikidetzak izan behar du hezkuntzaren lehen helburua; tolerantzia eta elkarriketa-gaitasuna ikasgai bihurtu behar dira; komunikazioa, berriz, entrenatu beharreko gaitasun bat da... Horretarako, giro soziala sortu behar da, jardunaldiak, publizitate-kanpainak, informazio orokorra, gurasoen eta seme-alaben arteko trebakuntza-proiektuak eta abar antolatuz. Beck eta Gernsheim (2011) soziologoek azaldu digutenez, gure gizarteak "globalizatuak eta kosmopolitak" bihurtu dira barrutik. Garai batean ez bezala, gaur egun jada ez da bakarrik mundu mailako errealitate bat estatu-, kultura- eta herri-puzzle izate

hori, baizik eta gizarte bakoitzarena. Familia-ereduen aniztasunean ere islatzen da aldaketa hori, bai eta norberaren bizitzeko eran ere.

Honenbestez, familiaren alderdi ekonomikoaz ez ezik, nazioartean onartuta dauden haurren eta 18 urtez behekoen eskubideen bermeaz ere arduratu behar lukete politikariek, bai eta alderdi sozialaz, psikologikoaz eta familientzako laguntza psikosozialez ere, bai familiako kideen arteko harremanei, bai helduek adingabeekiko dituzten hezkuntza-lanei dagokienez. Azkenik, hona gure iradokizuna: familia-moten bilakaeraren ikerketa zientifikoa eta anizkoitza izan behar dute abiapuntu gizarte-politikek, bai eta familia- eta harreman-bizitzan sortzen diren eskakizunak ere. Izan ere, esan dugu hasiera aldera gizartea bera islatzen dela familian, gorabehera bertsuak jasaten dituztela biek, eta hor jokatzen dela gizarte osoaren ongizatea. Gure inguruko herrialde askotan, badaude familien garapena eta premiak behatzeaz arduratzen diren erakundeak, ministerioak barne, eta haien azterketak eta ondorioak dira familia-politikak zehazteko oinarriak. Alemanian, esate baterako, Haurtzaroaren, Gazteriaren eta Familiaren Institutu federal bat dago, eta ikerketa ugari egiten ditu familiarekin lotura duten gaiez: ikerketa horien arabera erabakitzen dira familiari buruzko politikak. Beraz, gizarte-erakundea den aldetik, familiaren balioa eta balioespena ez daude aldarrikapen ideologikoen mende, baizik eta eskubide jakin batzuk bermatzen dituzten eta familiaren egiturak eta funtzioak babesten dituzten politikak martxan jartzearen mende.

ERREFERENTZIAK

Bauman, Z. (2002) *Society under Siege*. Poly Press. Londres

Bauman, Z. (2003) *Amor líquido*. Acerca de la fragilidad de los vínculos humanos.

Bauman, Z. (2006) *Confianza y temor en la ciudad*. Vivir con extranjeros. Arcada.

Bartzelona, Fondo de Cultura Económica. Madril.

Beck, U. (1999) *Hijos de la libertad*. Fondo de Cultura Económica. Argentina

Beck, U./ Beck-Gensheim, E. (2013): *Fernliebe. Lebensformen im globalen Zeitalter*

Becksche Reihe. Verlag Suhrkamp. Berlin

Beck U./Beck-Gernsheim E. (2013) *Lebensformen im globalen Zeitalter*. Fernliebe.

Suhrkamp. Berlin

Castells, M. (1998) *La era de la información*. Economía, Sociedad y Cultura. 2.

liburukia El poder de la identidad. Alianza Edit. Madril

Hernández Aristu, J. (2006) *Las familias monoparentales en Navarra*. Evolución, perspectivas vitales y proyección de futuro en el contexto de España y de la Unión Europea.

In: Sociedad y Utopía. *Revista de Ciencias Sociales*. 27. zk., 49-76 orrialdeak

Hernández Aristu, J./Lopez-Blasco, A (1995) *La familia en Navarra: Individual-*

ización o redes sociales. In: *Revista Documentación Social*, 98. orrialdea, 121-148 orrialdeak.

Hernández Aristu, J./Lopez-Blasco, A (2001): *Familia y cambio social*. *Actitudes, perspectiva y nuevos retos*. Nau Llibres. Valentzia.

Hernández Aristu, J. Errea Rodriguez, J. (2008) *Evolución y factores de estabilidad para el futuro de la familia en Navarra*. Nafarroako Gobernu Iruñea.

Hernández Aristu, J. (2011) *Trabajo Social en el Espacio Europeo*. Grupo5. Madril

Malgisini, G./ Candalija, J. EAN (2014): *Dossier "Pobreza en España"*.

INE: *Datos demográficos y de la población varios años: (2000-2014)* <https://www.google.es/search?output=search&client=psyab&q=INE&btnG=>

Pérez-Nievas Montiel, S., Daniela Vintila, C. (2011) *La reagrupación familiar en España y en Europa*. AFDUAM, 15. zk. Madril (MUAKo Zuzenbide Fakultateko Urtekaria, 15 (2011)

Requena, Miguel / Sánchez-Domínguez, María (2011) *Las familias inmigrantes en España*. Revista Internacional de Sociología (RIS) Monografikoa, 1. zk., 79-104,

UNICEF (2014). *Los niños de la recesión. El impacto de la crisis económica en el bienestar infantil en los países ricos*. Raport Card, 12. zk., Centro de investigaciones. Florentzia

Unión de Comunidades Islámicas de España (2013) *Estudio demográfico de la población musulmana*. Explotación estadística del censo de ciudadanos musulmanes en España referido a fecha 31/12/2012. UCIDE. Madril.





9. JAIOTZA-TASA, GIZARTE- ONGIZATEA ETA FAMILIA-POLITIKA

EGUZKI URTEAGA

72

Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eta Nafarroako Foru Erkidegoak (NFE) arazo demografiko larri bat dute biek ala biek, haien biztanleria azkar zahartzen ari baita, bi arrazoi nagusi direla medio.

Bata da bizi-itxaropena etengabe luzatzen ari dela. 2015ean, 83,15 urte zen bizi-itxaropena EAEn, eta 83,64 urte NFEEn. Hori aipatzeaz bat, azpimarratu behar da bizi-itxaropena handiagoa dela emakumezkoen artean, 86,00 eta 86,63 urte baita, hurrenez hurren. Gizonezkoen artean, berriz, 80,15 eta 81,03 urte da aipatutako erkidegoetan. Biak daude bizi-itxaropen luzeena duten eskualdeen artean, bai estatuan, bai European. Are, bizi-itxaropenak luzatzen jarraitzen du denborak aurrera egin ahala; 1980an, 74,77 eta 75,20 urte zen, EAEn eta NFEEn. Beraz, "zaharrak zaharragoak" dira, 75 urtetik gorako biztanleen kopuruak handituz jarraitzen baitu.

Beste arrazoa jaiotza-tasa txikia da. 2016an, 1.000 biztanleko 8,7 jaiotza izan zen EAEn, eta 1.000 biztanleko 9,24 Nafarroan. Egoera hori, gainera, okertuz doa

denboraren poderioz; izan ere, tasa horiek 2005ekoak baino txikiagoak dira, eta puntu bat galdu dute azken bost urteetan. Hori dela eta, Euskal Herria azkenetakoa da, Europako herrialdeetan, jaiotza-tasari dagokionez; hiru bakarrik baititu atzetik: Grezia (8,5/1.000), Portugal (8,3/1.000) eta Italia (8/1.000). Europar Batasuneko 1.000 biztanleko jaiotza-tasa 10,4 eta 10,7 izan zen, batez beste, 2005ean eta 2010ean; beraz, bi euskal lurralde horietakoa sistematikoki egon da batezbestekoen azpitik. Tasa altuenak Irlandak (14,1/1.000), Frantziak (12/1.000) eta Suediak (11,7/1.000) dituzte.

Aipatu ditugun datuak arduratzekoak dira, oso; izan ere, jaiotza-tasa txikia duela zenbait urtetik hona (hamarretik gora) gertatzen ari da, eta bizi-itzaropena etengabe haziz doa, urtez urte. Egoerak metatuz doaz, eta, ondorioz, bizkor zahartuz doa biztanleria. Zahartzeak arazo larriak eragingo ditu 15 edo 20 urte barru gaurko ongizate-estatuari eusteko.

Lehenik eta behin, biztanle aktiboen kopurua txikiagotu egingo da, eta erretiratuen proportzioa, berriz, handitu. Horrekin, pentsio-sistema publikoak erreka jotzeko

arriskua du. Sistema defizitarioa da dagoeneko, eta gobernu zentrala behartuta dago, horrenbestez, erreserba-funtsak erabiltzera, hau da, "pentsioen itsulapikoa" irekitzera. 2017ko abenduan, Gizarte Segurantzak 7.782 milioi euro erabili zituen. Haietatik, 3.586 milioi euro funts horretatik hartu zituen, abenduko pensioen aparteko saria ordaintzeko. Kopuru hori kenduta, 8.095 milioi euro bakarrik geratzen dira gaur funtsean. 2011n, ostera, 66.815 milioi zeuden. Argi dago funtsa hustuz doala. Beste hileko sari bat ordaintzeko adina diru baino ez dago. Egoerak okerrera egingo du bat-batean baby-boom belaunaldikoak jubilatzen hasten direnean, gaurko belaunaldia baino ugariagoa baita.

Bestalde, zenbait sektore ekonomikok zailtasunak izango dituzte eskulana aurkitzeko eta, ondorioz, hazteko aukerak lortzeko. PWC aholkularitzak egin duen ikerlan baten arabera, Euskal Herriak 100.000 langileko defizita izango du hemendik hamar urtera. 2010-2020 denboraldirako aurreikuspenek diotenez, lan egiteko adinean dagoen biztanleriak 122.251 langile gutxiago izango ditu, hau da, % 8,58 gutxiago. Egoeraren latza ezkutuan geratu da, hein batean, etorkinen populazioa handitu egin delako —1998 eta 2008 urteen bitartean batez ere—, eta 2009tik aurrera langabezia handitu egin delako, krisi ekonomikoaren ondorioz. Baina ekonomiak onera egin eta langabezia murriztuz doan neurrian, industria-sektoreko zenbait enpresa zailtasunak izaten hasi dira eskulana aurkitzeko, eta horrek hazteko gaitasuna baldintzatzen die.

Azkenik, biztanleria zahartuz doanez, handituz doa, orobat, etengabeko arreta, eta ez hain etengabekoa, behar duten mendeko pertsonen kopurua. Arazoa da ez dela egongo behar beste biztanle aktibo pertsona horiek guztiak zaintzeko. Orain arte, emakume latinoamerikarrek egin dituzte eskuarki lan horiek, baldintza negargarrietan lan egitea onartzen baitute, ordutegi, soldata eta denbora libre aldetik. Ikusirik mendeko biztanleria handituz doala, eta zaintza-lanak egiteko moduan dagoen biztanleria aktiboa txikituz doala eta administrazio publikoak sektorea erregulatu nahi duela —zaintza-lanen kalitatea hobetu nahian—, argi dago hego Euskal Herriak arriskua duela zailtasun handiak izateko. Horren ondorioz, gerta daiteke zenbait emakume denbora motz edo luzerako lan-mundutik ateratzea, senideak zaintzeko. Horrek emakumezkoen enplegu-tasa txikiagotu egingo luke.

Egoera hori ikusirik, nahitaezkoa da berrikustea familia-politikak, bereziki, eta gizarte-politikak, oro har, belaunaldien berritze-tasara hurbiltzeko. Komeni da, horretarako, begiratu bat ematea Europako herrialdeei; batzuk gauza izan dira helburu hori lortzeko genero-berdintasuna eta ongizate-estatu sakrifikatu gabe eta, gainera, juxtu kontrako

bidetik joz. Izan ere, jaiotza-tasa handiena duten herrialdeek, hala nola Frantziak eta Europa iparraldeko herrialdeek, jaiotza-tasa handia izateaz gainera, familia-eredu malgua dute —hau da, familia-eredu askotarikoak onartzen dituzte, eta emakumezkoen jarduera-tasa handia da haietan— eta asmo handiko familia-politikak dituzte —gizarte-prestazio oparoak eta haur txikiekiko arreta-zerbitzu onak—. Chemin-ek dioen bezala, “jaiotza-tasa handia da European familia-arau malguak dituzten herrialdeetan, emakumeek lan egiten duten herrialdeetan, familia-politika oparoak dituztenetan eta haurren arreta ondo antolatua dutenetan”.

Eta egia da. Aipatutako herrialde horietan, familia-arauak malguagoak dira, eta familia-ereduak askotarikoagoak. Herrialde horietan, ezkontza berantiar gehiago, ezkontzaz kanpoko jaiotza gehiago, guraso bakarreko familia gehiago eta berrosatutako familia eta dibortzio gehiago dago Europa hegoaldeko herrialdeetan baino. Azken hamarkadetak gorabehera, hegoaldeko eredu tradizionalagoa eta zurrunagoa da. Italian, Espainian, Portugalen eta Grezian, adibidez, ez da bereziki ondo ikusten emakumeak kanpoan lan egitea haur txiki bat izanik, edo haur bat izatea ezkontzaz kanpo. Herrialde horietan, ezkontzaz kanpoko jaiotza-tasa % 30etik beherakoa da. Frantzian, Suedian edo Norvegian, berriz, % 50etik gorakoa.

75

Eredu malgua duten herrialde horietan, emakumezkoen jarduera-tasa handia da, gainera. Horrenbestez, emakumezkoek lan egitea, amatasuna geldiarazteko faktore izan ordez, hura gauzatzeko baldintza da. Ez alferrik, 2010ean, 24 eta 54 urte bitarteko emakumeen enplegu-tasa % 83,8 izan zen Frantzian, % 85,6 Danimarkan, eta % 87,5 Suedian, besteak beste. Europako hegoaldeko herrialdeetan, ostera, jaiotza-tasa txikia ezaugarri bat da, eta emakumeen jarduera-tasa askoz txikiagoa da iparraldean baino: % 64,4 Italian, % 72,2 Grezian eta % 78,3 Espainian. Beraz, esan daiteke emakumeen emantzipazioa eta autonomia dela jaiotza-tasa handitzeko baldintza. Etxeko andrearen eredu tradizionalak, berriz, tasa hori txikiagotzea dakar.

Baina familia-ereduaren malgutasuna ez da nahikoa jaiotza-tasa handituko dela bermatzeko, familia-politika oparoak ere behar baitira, baliabidetan nahiz zerbitzutan oparoak. Frantzian nahiz Europako iparraldeko herrialdeetan, inbertsio handiak egiten dituzte familia-politiketan: BPGaren % 3 dira Norvegian eta Finlandian, % 3,5 Frantzian eta Suedian, eta % 4 Danimarkan. Egoera guztiz kontrakoa da Europako hegoaldeko herrialdeetan, proportzio horiek askoz txikiagoak baitira. Italian, % 2 baino pixka bat handiagoak dira, eta Espainian, Portugalen eta Grezian % 1,5 baino txikiagoak.

Familia-politiken inbertsio horiek bi modalitate dituzte. Batetik, zerga-kenkariak eta gizarte-prestazioak ematen zaizkie familiei, edozein eredu (tradizionala, guraso bakarrekoa, berrosatua edo sexu bereko gurasoekikoa) eta edozein diru-baliabide dituztela ere (errenta, ondarea), eta, hala, handitu egiten da haien onarpen soziala eta eraginkortasuna. Bestetik, zerbitzuak eskaintzen zaizkie haur txikiei, hala nola haurtzaindegiak, arreta-zerbitzu alternatiboak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab. Frantzian, adibidez, haurren erdiek baino gehiagok baliatzen dute arreta-sistema. Proportzio hori handiagoa da Europako iparraldean: Norvegiako haurren % 54k eta Danimarkako hiru urtetik beherako haurren % 65ek du plaza bat haurtzaindegian; tasa hori ez da % 40ra iristen Italian, Espainian edo Grezian. Beste modu batera esanda, familia-politikek, eraginkorrak izango badira, finantza-laguntzak emateaz gainera haur txikientzako arreta-zerbitzuak eskaini behar dituzte, diru-laguntzak emate hutsa ez baita nahikoa.

Bi faktore horiez harago, jaiotza-tasa handia duten Europako herrialdeek aspalditik dituzte familia-politika horiek; eta politika iraunkorrak dira, gainera. Cheminek azpimarratzen duenez, Frantziako familia-politikak "XX. mendearen hasieran sortu ziren, haur txikiak zituzten gurasoei diru-osagarriak ematen zizkieten enpresa paternalistetan, hain zuzen. 1930eko hamarkadan eta bigarren mundu-gerraren amaieran, Estatuak hartu zuen lekukoa, eta, ondorioz, familientzako prestazioak orokortu egin ziren, eta guraso zirenentzako zerga-murrizketak ezarri. Finantza-abantaila horiez gainera, haur txikientzako harrera-egiturak eta haur-eskolak ezarri dira urteen poderioz". Politika horiek, gainera, nahiko iraunkorrak izan dira. Beraz, apenas izan duten aldaketarik gobernu batetik bestera, eskuinekoak zein ezkerrekoak izan. Horrek irakurgarritasuna eta segurtasuna ematen die seme-alabak izan nahi dituzten familiei.

Europako hegoaldeko herrialdeak halako familia-politikak ezartzen has daitezen, ezinbestekoa dute lehenaldia alboratzea, eta, bereziki, diktaduren oroimena baztertea. Hain zuzen, Italiak, Espainiak, Portugalek eta Greziak inkontziente kolektiboan daramate diktadura-erregimenek bultzatu zituzten jaiotza-politika haien oroimena, kosta ahala kosta sustatu nahi baitzuten beren jaiotza-tasa, botere demografikoa handitzeko. Jaiotza-politika haiekin batera familia-eredu tradizionala sustatzen zuten; hots, emakumea etxe-inguruko lanetan bakarrik ibil zitekeen, eta haren lan nagusia —eta batzuetan, bakarra— gurasoak, senarra eta seme-alabak zaintzea izaten zen. Harrez geroztik izan diren gobernuak kontu handiz ibili dira, eremu pribatuan sartu gabe, eta uko egin diote asmo handiko familia-politikak ezartzeari.

Bukatzeko, ezinbestekoa da familia-politikak gizarte-inbertsiotzat hartzea, eta ez gastutzat. Zerga-kenkariak eta kontziliazio-prestazioak ematen dituen eta haurtzaindegietarako eta eskolaz kanpoko jardueretarako plazak sortzen dituen herrialde batek aukera ematen die familiei, oro har, eta emakumeei, bereziki, beren bizitza profesionala bateragarri egiteko bizitza pribatuarekin. Horrez gain, ongizate-estatuak irauteko baldintzak jartzen ditu, eta etorkizunerako prestatzen da.

Laburbilduz, zenbait irudipen, beldur eta ohitura gainditzea ezinbestekoa da datorkigun arazo demografikoari erantzuteko, are gehiago jakinda emakumeen emantzipazioa, lan-jarduera eta autonomia bateragarriak direla erabat herrialde baten bizitasun demografikoarekin, horretarako baldintzetako bat baita.

Egoera hori ikusirik, Hego Euskal Herriko administrazio publikoak ez dira atzean geratu, eta argi utzi dute jabetzen direla nolako arazo demografikoa gainditu behar duen lurraldeak. Horren adierazgarri da Familiaren eta Haurtzaroaren aldeko Ituna, zeina elkarrekin aurkeztu baitute Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta, euskal udalerrien izenean, Eudelek. Itun horren helburua da EAEko jaiotza-tasa handitzea, eta gaurko 18.000 jaiotzak gainditzea. Jasotako neurrietako bat da bigarren seme-alaba izateko laguntzak bi sari izatetik hiru izatera pasatzea. Urtean bost milioi euro gehiago gastatzea ekarriko du horrek. Itunak dekalogo bat dauka, eta neurri zehatz batzuk jasoko ditu IV. Familien Laguntza Planean.

77

Itun horren bidez lortu nahi da, besteak beste, "haurtzaroan inbertitzea, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna ahalbidetzen duten baldintzak sortzea, gazteen emantzipazioa erraztea, seme-alabak dituzten familiei laguntzea eta emakumeei kalitateko lana lortzeko erraztasunak ematea". Era berean, nahi da "seme-alabak dituzten familia guztiei diru-baliabide gutxieneko batzuk bermatzea haur-pobrezia saihesteko, aitei eta amei aukera ematea seme-alabei behar duten denbora dedikatzeke, haur guztiek kalitatezko arreta-zerbitzuak modu eroso eta eskuragarrian jasotzea, eta eskola-sistema inklusibo eta hezkide bat sustatzeko hezkuntza-politikak berrantolatzea".

Gure ikuspuntua zuzena baldin bada, prestazio eta zerbitzu gisa esleitzen diren baliabideak ez dira behar bestekoak, eta ezin izango dute, besterik gabe, jaiotza-tasa handiagotu.

10. DEMOGRAFIA EZ DA ARAZOA, FAMILIEN ALDEKO POLITIKAK EZ DIRA IRTENBIDEA

MARTA LUXAN SERRANO

78

Demografia ez da arazoa, portaera demografikoak ezin baitira epaitu, ez dira onak edo txarrak. Dinamika demografikoak gu guztion jokaeren emaitza eta bestelako prozesu sozialen ondorio eta eragile ditugu. Beste noizbait aipatu dudan moduan, portaera demografikoak oso malguak dira eta, nahiz eta pribatua izendatu izan den eremu horretan gauzatu, publikoa deitua izan den esparruan gertatzen diren aferekin estuki lotuta daude; hau da, gertaera demografikoak ulertzeko testuinguru sozioekonomikoari erreparatu behar diogu.

Era berean, Anna Cabrek oso ongi azaldu duenez, portaera demografikoez aritzen garenean pertsona errealei buruz ari garela ahazten zaigu sarritan. *Jaiotza gehiago behar ditugu*, diote ahots batzuk. Baina, nortzuk behar dituzte jaiotza horiek eta zertarako? Eta zeintzuk izango dira jaioko diren pertsona horien gurasoak? Zer adinekoak? Non eta nola biziko dira? Nork hazi eta heziko ditu?

EA Eri dagokionean, 2015etik jaiotzak eta jaiotza tasa gutxitu egin dira. Eta hurrengo urteetan ere gauza bera gertatuko da. Zergatik? Umeak izateko adinean dauden pertsonen kopurua urriago delako. Hau da, *baby-boomean* jaio ginenok adinean aurrera goaz eta atzetik datozen belaunaldiak, guraso izateko adinetara heltzen ari direnak alegia, gero eta urriagoak direlako. Beraz, bestelako gauzak aldatu ezean, ezin jaiotza gehiago espero.

Dagoeneko esan dudanez, portaera demografikoen oinarrian bizitza errealak ditugu, egoera sozioekonomikoak, etorkizunerako ametsak, bizitza duinak garatzeko aukera (edo aukerarik eza), besteak beste. Eta horiek aldatu ezean demografiaren mudatzea harrigarria litzateke eta, ziurrenez, ez bereziki liluragarria. Demagun jaiotza tasak igotzen direla hogeita hamar urte baino gutxiago dituzten pertsonen umeak izatea erabakitzen dutelako. Onuragarria irudituko litzazuke? Eta gazte horien gurasoei?

Nork zainduko lituzke umeak beraien gurasoak masterrak egiten dituzten bitartean? Eta zeinekin biziko lirateke, guraso eta aiton-amonekin? Kontuz zenbakietara mugatzen diren desio demografikoekin, amets-gaizto bilakatzeko arriskua baitugu!

Bestalde, bizitzaren birsorkuntza umeak jaiotzekin baino ez lotzea oso ikuspegi mugatua delakoan nago. Bizitzaren birsorkuntza askoz kontzeptu zabalagoa dugu, eguneroko bizitzari erreferentzia egiten diona - zaintzei, besteak beste - eta prozesu sozial anitzak barne biltzen dituena. Bizitzak sostengatzea eguneroko ariketa dugu eta horretan datza birsorkuntza fisiko zein soziala. Eta hortxe agertzen zaizkigu familiak, bizitzak sostengatzen eta birsortzen. Horrela bada, zergatik diot politika familiarak ez direla irtenbidea?

Galdera honi erantzuteko lehenengo pausua familia nola definitzen dugun aztertzea litzateke. Hasteko, nire aburuz familiei buruz hitz egin beharko genuke, pluralean, familia izateko modu anitzak baitaude munduan eta gurean. Era berean, familiak definitzeko bi bide erabili ohi dira: elkarbizitza oinarritzat hartzen duena (definizio estatistikoa) eta horrek betetzen dituen funtzio sozialei erreparatzen diona (definizio soziologiko zein antropologikoa).

Lehenengoari dagokionean, Eustatek definizio hau erabiltzen du: "Familia pertsona multzo bat da; oro har, pertsona horiek ahaidetasun-harremana izaten dute euren artean, odolezkoa edo ezkontzaren ondoriozkoa (gradua gorabehera), eta elkarrekin bizi dira etxebizitza berean. Etxebizitzan lo egiten duten mirabeak eta familia erregimenean dauden ostalariak ere familia barruan sartzen dira. Halaber, bakarrik eta pertsona bakarreko familia gisa bizi diren pertsonak ere sartzen dira definizio honetan" (Eustat).

Praktikan, ikerketa aplikatuetan, definizio horrekin lan egiten dugu askotan, etxebizitzak heltzeko azterketa unitate errazak direlako eta horietaz datu ugari eskuragarri ditugulako. Horrela aritzean sare familiarak eta bestelako sare sozialak alboratzen ditugu eta, horiekin batera, eguneroko bizitzaren antolaketa ulertzeko gakoak diren elementuak ere (umeen zaintza horren adibidea litzateke).

Literatura soziologiko zein antropologikoan maiz aipatzen dira familien funtzioak eta hauxe dugu instituzio sozial hori zer den zehazteko beste bidea. Jakina denez, familien funtzio sozialak aldakorak dira historian zehar eta kulturen artean: une

eta gune desberdinetan sexualitatearen eta ugalketaren nolabaiteko kontrola, umeen sozializazioa eta hauen zein helduen babes afektiboa, eta moduren bateko kooperazio ekonomikoa barnebiltzen dituela baieztatu genezake. Gauzak horrela, argi dago definizio estatistikoa motz geratzen zaigula eta ahaidetasunaren azterketan berreskuratzen eta proposatzen ari diren kontzeptuak emankorrangoak liratekeela, hala nola, hautazko familiak edota elkar babesteko sareak.

Tamalez, politika familiarak gehienetan definizio estatistikoan oinarritu dira eta, maizegi (Eusko Jaurlaritzak berriki sinatutako *Familien eta haurtzaroaren aldeko ituna* horren adibide argia dugu) umeak dituzten edo izan ditzaketen guneei zuzendutako neurriak baino ez dituzte jaso. Bestalde, nazioarteko esperientzien azterketak ugalkortasunaren areagotzea helburu duten neurri zuzenen eraginkortasunik eza islatzen du.

Hori guztiagatik, nire proposamena pertsona orori zuzendutako politika sozialak sustatzea litzateke, populazio osoak bizitzea merezi duen bizitza duina izango duela bermatuko luketen neurriak. Horretarako lehenengo pausuak, bizitzaren birsorkuntzarako beharrezkoak diren lanei arreta jartzea litzateke (hots, lan merkatutik haratago begiratu eta lan guztien banaketa nola gauzatuko dugun birpentsatzea), generoen arteko berdintasuna bultzatuko duten politikak martxan jartzea eta etxebizitza eskubidea jabetza pribatua baino garrantzitsuagoa dela islatzen duten neurriak aktibatzea. Horretaz gain, mugen aferekin zer egingo dugun pentsatu beharko genuke. Arazoa biztanle gazteen kopurua balitz, irtenbide erraza genuke: zain daudenei ateak ireki. Baina kasu honetan ere, erabaki politikoez ari gara eta ez balizko arazo demografikoetan sustatutako ebazpenetan.

Liburu honetan biltzen dira 2017ko urriaren 11an Ezkerraberi fundazioak eta EhuGunek antolatutako 'Familia-politikak ongizate estatuan' izeneko jardunaldiaren ponentziak



Erakunde babeslea

